



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Euskara biziberritzeko
ikergunea

2024ko urria

Jatorrian gaztelania hizkuntza ofiziala duten etorkinen integrazio soziolinguistikoa Gipuzkoan



**Jatorrian gaztelania hizkuntza ofiziala duten etorkinen integrazio
soziolinguistikoa Gipuzkoan**

Ikerketa-taldea: Belen Uranga, Asier Basurto, Arantza Eguiguren
2024ko urria



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Soziolinguistika Klusterra

Martin Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain
943 592 556
[https://soziolinguistika.eus/eu/
kluster@soziolinguistika.eus](https://soziolinguistika.eus/eu/kluster@soziolinguistika.eus)

AURKIBIDEA

1	SARRERA	3
2	IMMIGRAZIO LATINOAREN TESTUINGURUA	4
2.1	Latinoamerika jatorria duten etorkinak Gipuzkoan: datu batzuk	4
3	TESTUINGURU TEORIKOA	7
3.1	Migrazio-prozesuaren abiapuntua	7
3.2	Immigrazioaren integrazio soziala eta soziolinguistikoa. Azterketa-markoa 11	
3.3	Etorkinen integrazio soziala	12
3.4	Integrazio sozialaren piramidea	13
3.5	Integrazio soziolinguistikoa	15
4	METODOLOGIA	20
4.1	Ikerketa kualitatiboa	20
4.2	Datuen bilketarako teknikak	20
4.3	Lagina	21
4.4	Datuen kudeaketa eta analisia	23
5	IKERKETAREN EMAITZAK	24
5.1	<i>Integrazio sozialaren biziraupeneko fasea (0 Fasea)</i>	24
5.1.1	Migrazio-prozesua martxan jartzen dituzten arrazoiak	24
5.1.2	Harrera-gizartean lehen kontaktuak	26
5.1.3	Integrazio soziolinguistikoa 0 fasean	29
5.2	Integrazio laborala (1 Fasea)	32
	Integrazio soziolinguistikoa lan-munduan	33
5.3	Integrazio soziala (2. Fasea)	35
5.3.1	Jatorriarekiko eta harrera-gizartearekiko sentimenduak	35
5.3.2	Integrazio soziolinguistikoa	39
5.4	Integrazio kulturala (3. Fasea)	40
5.5	Hizkuntza-jarrerak	43
5.5.1	Iritziak (Alderdi kognitiboa)	43
5.5.2	Euskararekiko sentimenduak (Alderdi afektiboa)	44
5.5.3	Euskararen hizkuntza-plangintzaren eta euskara ikastearen prozesuaz 45	
6	ONDORIOAK	47
	ERANSKINA. Elkarriketa-gidoia	55
	ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	59

1 SARRERA

Jatorrian gaztelania hizkuntza ofiziala duten etorkinen integrazio soziolinguistikoa Gipuzkoan ikerketaren emaitza aurkeztuko da dokumentu honetan.

Soziolinguistika Klusterrak egindako ikerketa honen oinarria duela bi urte *Gipuzkoako Hizkuntza-aniztasuna; jatorri atzerritarreko biztanleen hizkuntza-bizipenak, jarrerak eta asmoak* (Uranga eta Aierdi 2021) lanean dago. Izan ere, bertan aztertzen zen etorkinek jatorrizko hizkuntzekiko eta euskararekiko eta gaztelaniarekiko zer jarrera eta praktika dituzten; orduan, xede-talde desberdinen talde hauek hartu ziren kontuan: a) hiztun-kopuru handikoen artean, Marokon, Aljerian, Errumanian, Pakistanen, Portugalen, Senegalen eta Txinan jatorria zuten biztanleak, eta b) gaztelania ofiziala duten estatuetan jatorria dutenak (Erdialdeko eta Hego Amerika).

Ateratako ondorioetan sakontzeko, Gipuzkoan bizi diren Erdialdeko Amerika eta Hego Amerikan jatorria duten eta jatorrian gaztelania hizkuntza ofiziala dutenek Gipuzkoan egin duten¹ *hizkuntza-sozializazioa* aztertu da.

Dokumentu honetan, sarreraren ondoren, Gipuzkoako immigrazio latinoaren inguruko oinarrizko datu batzuk eskainiko dira, ondoren, ikerketaren marko teorikoa azalduko da; laugarren atalean ikerketan erabili den metodologiaren berri emango da, eta bosgarrenean emaitza nagusiak aurkeztuko dira. Azkenik, seigarren atalean, ikerketatik eratorritako ondorioak laburbilduko dira.

¹ Ikerketa honetan Erdialdeko eta Hego Amerikako jatorria duten migratzaileak *latino* terminoarekin izendatu ditugu, beti ere, Galan eta Alonso ikerlariak erabiltzen duten adieran. Euren hitzetan, *latino* terminoa Estatu Batuetan erabiltzen hasi zen XX. mendeko 70 hamarkadatik aurrera, eta honako ezaugarriak partekatzen dituzten migratzaileak izendatzeko baliatu zen: Latinoamerika jatorria duten migrazioaren esperientzia partekatua dute eta Estatu Batuetan gutxiengo etniko nagusi dira, eta, orohar, identitate kulturala partekatzen dute, hain zuzen, hizkuntza bati lotuta, gaztelaniari. Azpimarratzekoa da euren arteko aniztasuna handia dagoen arren, horiek guztiak bateratzen dituen *latino* terminoak 50 urteko ibilbidea duela gutxienez (Villa Galán eta Alonso 2023, 121), eta hala hedatu da geure artean ere.

2 IMMIGRAZIO LATINOAREN TESTUINGURUA


2.1 Latinoamerika jatorria duten etorkinak Gipuzkoan: datu batzuk

Jatorrian gaztelania hizkuntza ofiziala duten etorkinek, hots, latinoek Gipuzkoan egin duten integrazio soziolinguistikoa aztertzeko migrazio-prozesuaren hizkuntzaren dimentsioan jarri da fokua.

Azterketa egin aurretik ordea, komenigarria da Gipuzkoan gertaturiko migrazio-fenomenoaren oinarrizko datu batzuk.

Estatutik kanpoko immigrazio esanguratsua hasi zenetik aurrera Gipuzkoan -XXI. mende hasiera-, Latinoamerika jatorria duen etorkinen kopurua hazi da eten gabe, Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu den bezala. Ia lau mila etorkin izan ziren 2001. urtean (3.998) eta 10 aldiz baino gehiagoko hazkundea izan zuen kopuru horrek 2023. urte bitartean (45.998 biztanle), hain zuzen, populazio osoaren % 0,6 izatetik % 6,3ra pasaz (ikus 1. eta 2. grafikoak).

**1. Latinoamerika jatorria duten etorkinen bilakaera Gipuzkoan.
Absolutuak. 2001-2023**



Iturria: (Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia 2023) ²

² Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak *Latinoamerikar* kontzeptua erabiltzen du bere datuak ematerakoan. Kontuan izan behar da, honako hori kontzeptu geografikoa dela, eta beraz eremu horretan kokatzen diren estatu guztiak hartzen dituela kontuan. Ikerketa

2. Grafikoa. Latinoamerika jatorria duten etorkinen bilakaera Gipuzkoan. Biztanleria orokorrarekiko %. 2001-2023



Iturria: (Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia 2021)

Era berean, kontuan izatekoa da Gipuzkoan jatorri latinoa duten biztanleen proportzioaren hazkundera; 2001etik 2023ra % 32,2tik % 52,3ra igaro da: epe horretan heren bat izatetik etorkinen populazioaren erdia baino gehiago izatera pasa, eta joera hori hazten ari da azken urteotan (ikus 3. Grafikoa).

3. Grafikoa. Latinoamerika jatorria duten etorkinen bilakaera Gipuzkoan. Etorkin guztiekiko %. 2001-2023




Iturria: (Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia 2023)

honetan, aurreko atalean azaldu den bezala, irizpide linguistikoari erreparatu zaio, eta, beraz, jatorrian gaztelania ofiziala duten estatuak soilik hartu dira aintzat. Nolanahi ere, desberdintasun hori kontuan hartuz gero, kontzeptuaren baitan Ikuspegik eskaintzen dituen datuak oso pertinenteak direla iruditzen zaigu.

Sexuaren arabera aztertuz, interesgarria da datuek erakusten duten argazkia. Izan ere, biztanleria latinoaren artean feminizazioa hasierako urteetan bertan agerian jarri baitzen (2001ean % 60,1 emakumezkoa zen), eta gorabehera txiki batzuekin proportzio berbera erakusten du 2023ko datuak ere.

4. Grafikoa. Latinoamerikako jatorria duten emakumeak Gipuzkoan. %. 2001-2023



Iturria: (Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia 2023)

Datu orokor horiek, bat datoz Euskal Autonomia Erkidegoan gertatzen denarekin, Ikuspegik zehazten duen bezala (kasu honetan, 2021 urte bitartean geratutako bilakaerari dagokionean:

Latinoamerikako jatorria duen kolektiboak feminizazio-maila du ezaugarri (% 61,2), oro har, atzeritar jatorriko biztanleriaren orekarekin (% 52,4) alderatzen badugu. Herrialdeka, feminizazio hori bereziki nabarmena da Nikaragua (% 72,7), Honduras (% 70,7), Paraguai (% 69,8) eta Brasilen kasuetan (% 68,3), jatorri horietako hamar lagunetik ia zazpi emakumeak baitira. Boliviak apur bat gainditzen du (% 61,3) latinoamerikarren batez besteko feminizazio-tasa; Kolonbia (% 58,0), Peru (% 56,2), Ekuador (% 54,3), Venezuela (% 53,7) eta Argentina (% 50,4), berriz, beherago daude. (Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia 2021, 7).

Laburbiltzeko, beraz, esan daiteke 2023ko datuak kontuan izanda Gipuzkoan latinoen dentsitatea biztanleria osoarekiko % 6 ingurukoa dela, hain zuen, modu ia konstantean hazten ari den proportzioa. Kontuan hartzekoa da, aldi berean, etorkinen populazio osoaren artean bere pisua handitzen ari dela nabarmen, kopuru

osoaren erdia baino gehiago osatzen baitute, eta proportzio hori hazten ari dela urterik urte. Beraz, migrazio-prozesua gorantz doan fenomeno da Gipuzkoan -EAEn orokorrean gertatzen den bezala, bestalde-, eta horrek adierazten du harrera-herrialdean fenomenoaren garrantzia gero eta handiagoa izango dela, besteak beste, alderdi demografikoan, sozialean eta linguistikoan.

3 TESTUINGURU TEORIKOA

3.1 MIGRAZIO-PROZESUAREN ABIAPUNTUA

Etorkinek migrazio-prozesuaren abiapuntuan dituzten ezaugarriak kontuan hartu behar dira, ezaugarri horiek baldintza dezaketelako harrera-gizarteko integrazio-prozesua. Horien artean, migratzaileen abiatzeko jatorrizko arrazoiak, euren hizkuntza-biografiak, eta harrera-gizarteetan jarritako espektatibak, besteren artean.

Nazioarteko migrazio-mugimendu zabalen jatorria azaltzeko askotariko arrazoiak eskaintzen dituzte ikertzaileek. Ikuspegi tradizional batetik begiratuta fokua migratzaile norbanakoarengan jarri ohi izan da; hau da, ikuspegi horren arabera, migratzaile norbanakoek bere kabuz hartzen dute lekualdatzeko erabakia, betiere onartuta erabaki hori estatu desberdinen artean dagoen egoera ekonomiko eta sozialaren arteko arrakalak eragiten duela eta, beraz, egoera hori hobetzea helburu izan ohi dutela.

Begirada berriagoek, ordea, migrazio-prozesuaren erabakiak familien eta euren ingurukoek hartzen dutela argitzen dute (Moreno Fernández 2009, 135) (Sassen 2020, 127). Ikuspegi horretatik azpimarratzen da familiak nolabaiteko *migrazio agentziak* bilakatzen direla, alegia, migrazioa ahalbidetzen duten guneak. *Agentzia* horiek kapital finantzarioaz gain (diru-ekarpenak egiten dituztenak) kulturalak ere badituzte, eta, orohar, bidaiaren bideak eta moduak ezagutzen dituzte, eta egon daitezkeen aukerak eta mugikortasunari buruzko ezagutza dute (Castles 2014). Modu horretan ondo azaltzen da migratzaileek aurrekoen ibilbideak jarraitzen dituzten prozesuak, haien ezagutzak jasotzen baitituzte eta prozesuan lagunduta sentitzen dira. Honela azaltzen du ikerlari horrek prozesua:

Aurreko migratzaileek beren familietako edo komunitateetako kideei laguntzen diete, lanari, etxebizitzari eta arau ofizialei buruzko informazioa emanez. Sare horiek ez dira berriak, baina eraginkorrakoak eta iraunkorrakoak bihurtzen dira komunikazio eta garraio errazeko oihanpe batean. Sare migratzaileek gero eta gehiagoosatzen dituzte komunitate transnazionalen oinarriak (Castles 2014, 242).

Aierdi soziologoaren iritziz ere (Aierdi Urraza 2000), migrazio-mugimenduak sareetan garatzen dira: lehenago migratu direnek familia-kideak edo herrikideak gonbidatzen dituzte, eta, horrela, migratzaile berriak sare arrakastatsuen bitartez mugitu eta heltzen dira xede-gizartera. Horrek, gainera, zenbait kasutan helburu-gizarteko integrazioaren lehen fasea errazten du.

Bestalde, ez da ahaztu behar, migrazio-fenomenoa ez dela beti jatorri lurraldeetako pobrezia erabatekoarekin lotzen, aldiz, aztertu izan da, migratzaileak baliabide ertaineko egoeretatik abiatzen direla maiz (Castles 2014, 239) (Sassen 2020, 140), are gehiago, zenbait ikerlarik azpimarratzen dute garatzen ari diren lurraldeetan garapen-prozesu bera migrazioaren sustatzaile ere izan daitekeela:

Nazioarteko migratzaileek ez dute jatorria izaten harreman globaletatik at dauden lurralde pobre eta isolatuetan; aldiz, ohikoa da jatorria aldaketa sakonak eta azkarrek esperimendatzen ari diren lurraldeak izatea, hain zuzen, merkataritza-, informazio- eta ekoizpen-sare globaletan sartzen ari direlako. [...] Garapenak, beraz, migrazio-presioa geldiarazi beharrean, epe laburrean, migrazioa bultzatzea, jendearen itxaropenak handitu eta beharrezko mugikortasun-baliabideak hobetzen baititu³. (Nyberg Sørensen, Van Hear, eta Engberg-Pedersen 2005, 109–10)

Horrela bada, kontuan izan behar da xede-lurraldera heltzen diren migratzaileen egoera sozio-ekonomikoa ez dela homogeneoa, eta, beraz, integrazio soziala burutzeko baldintzak ere ez direla berdinak izango.

Horiez gain, migrazioaren oinarrian badira beste arrazoi batzuk ere. Arestian aipaturiko Aierdi ikerlari berak fokoa aldatzen du: migrazio-prozesua abiatzeko arrazoiak etorkinengan jartzetik gizarte-hartzaileengan jartzen du. Bere iritziz, migrazioak harrera-gizarteek izan ohi dituzten beharrei erantzuteko mugimendu ez-

³ Itzulpena geurea.

kaotikoak dira, haien beharrei egokituta. Ikuspegi hori interesgarria da baita fenomenoaren kudeaketaren aldetik ere, harrera-gizartearen erantzukizuna indartzen baitu gizartearen egokitzapen-prozesuan. Honela dio:

Fenomenoa ez [da] sekula mugimendu kaotikoa izaten; aldiz, gizarte hartzaileko premietara zehatz-mehatz egokitzen da. Migrazio-mugimendua beti gizarte hartzaileak finkatzen du. Salbuespenak salbuespen, etorkinak ez datoz; deitu egiten ditugu. Espainiatik etorritako garaian, immigrazioa bertako industriak eskatzen zuen; oraingoan, familiek eta zerbitzu sektoreak batik bat. Garai bakoitzean premia ezberdinak daudenez, jatorriak eta sexua aldatu egiten dira. (Aierdi Urraza 2022, 145)

Mugimendu horiek, gainera, nazioarteko mugimenduen parte dira; ez dira herrialde bakanetan gertatzen diren fenomenoak. Beraz, aztertzen ari garen Gipuzkoara heldutako migrazio-fenomenoak ere nazioarteko izaera duela, hau da, mundu-mailan gertatzen ari den eta ezaugarri propioak dituen fenomenoaren baitan kokatzen dela.

Nazioarteko ikuspegi hori harrera-gizarteetan ere islatzen da; izan ere, gizarte berrietan sozializatzen diren migratzaileek ezaugarri komun zenbait izateko joera erakusten dute. Ezaugarri komun horien artean aipagarria da, besteak beste, gaur egungo etorkinen izaera *transnazionala*. Portes ikertzaileak adierazten duenez (Portes 2005, 4), *transnazionalismo* terminoak erreferentzia egiten dio gizartearen baseetatik datozen etorkinen harreman-modu jakin bati (ez eliteek dituzten nazioarteko harremanei), hain zuzen, izaera pribatuko nazioarteko harreman-modu eta jardura bati egiten die erreferentzia. Hau da, gaur egun ohikoa da etorkinek muga nazionaletik gaindi askotariko harreman iraunkorrak izatea, horien artean ekonomikoak eta afektiboak. Ezaugarri horrek neurri batean etorkin horien harreman sozialak moldatzen ditu bai jatorrizko gizarteetan eta baita harrera-gizarteetan ere. Steven soziologoaren hitzetan (Steven 2013, 51), mugaz gaindiko jarduerak eta migratzaileen eta haien jatorrizko lekuen arteko loturak globalizazioaren ondorioz gertatzen diren prozesuak dira.

Egile horren hitzetan, gaur egungo teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerek komunikazio-molde berriak ezarri dituzte eta zedarritzen dute migrazioko harremanak: teknologia aurreratuak, bidaiaren eta mugikortasunaren kostu txikiak, telefonoak, Interneteko konexioak eta satellite bidezko telebistarako sarbideak talde sakabanatuen eta diaspora-komunitateen arteko hainbat komunikazio-modu erraztu

dituzte. Beste ikertzaile batzuek gainera, aipatzen dute migratzaileen nazioarteko izaera horrek euren identitatearekin lotzen dute:

Gizabanakoek mugak zeharkatzen dituzten gizarte-harreman eta -praktiketan parte hartzen badute beren eguneroko bizitzaren ezaugarri erregular gisa, orduan izaera transnazionala dute. Jendeak hori esplizituki ezagutzen duenean, eta elementu transnazionalak azpimarratzen dituenean, kide izateko modu transnazionala definitzen dute. (Levitt eta Glick Schiller 2004, 68).

Nolanahi ere, beste ikertzaile batzuk adierazi dute etorkinen artean nazioarteko harreman horiek (izaera transnazionala definitzen dutenak) garrantzi handikoak baldin badira ere, ez daudela erabat orokortuta migratzaile guztien artean; kasu askotan, jatorriarekiko harremanak eten egiten baitira (Portes 2005, 5).

Laburbilduz, esan daiteke migrazio-prozesua honako egoeratan sortzen dela nagusiki: jatorrizko lurraldeetan lan-baldintza prekarioak edo segurtasun fisiko edo juridiko gutxiko egoera gogorra izatea, ezegonkortasun politiko eta ekonomikotik urruntzeko aukera antzematea edota etorkizunerako bizitza hobeagoa izateko itxaropena eraikitzea ahalbidetzen dieten oinarrizko segurtasunaren pertzepzioa hautematea; horrez gain, bere horretan, bizi-baldintzak hobetzeko nahiak ere bultzatzen dezake jendea migratzera. Azkenik, oso kontuan izan behar da, baita ere, migrazio-mugimenduak harrera-gizarteko beharrei erantzuteko sortzen direla, neurri haundi batean.

Fenomenoa ulertzea helburu, beraz, komenigarria da alde batetik egungo migrazio-prozesuen nazioarteko izaeragatik migratzaileek partekatzen dituzten ezaugarriak aztertzea, oro har, ezaugarri heterogeneoak izan ditzaketen arren; eta, aldi berean, migratzaileen eta harrera-gizarteek erakusten dituzten ezaugarriei begiratzea, horiek guztiek baldintzatzen dutelako migratzaileek xede-lurraldean egiten dituzten sozializazio-prozesuak, eta horien artean, integrazio soziolinguistikoari dagozkienak.

3.2 Immigrazioaren integrazio soziala eta soziolinguistikoa. Azterketa-markoa

Etorkinen⁴ integrazio soziolinguistikoz hitz egitean, funtsean, harrera-gizartean migratzaileek egiten duten integrazio sozialarekin batera, bertako egoera linguistikorako egokitzapen-prozesuaz ari gara; zehazki, integrazio fase guztietan hizkuntzaren aldagaiak hartzen duen lekuari erreferentzia egiten zaio (Moreno Fernández 2009, 140).

Integrazioa soziolinguistikoa etorkinak eta harrera-gizarteak burutu beharreko alde biko prozesua da. Migratzaileek gizarteko behar linguistikoetara egokitzeko berariazko ahalegina negoziatu eta burutu behar dute, eta, aldi berean, harrera-gizarteak etorkina bertara egokitzeko erraztasunak eskaintzeaz gain, berak esperimentatuko dituen aldaketetarako prestutasuna agertu behar du, hots, jarrera aktibo eta irekia izan behar du gertatuko den egokitzapen prozesuarekiko. Horrek, ezinbestean, alde biko onarpena eskatzen du, xede-lurraldean, etorkinaren ezaugarrien onarpena, esaterako, kulturaren arloan (Zabalo et al. 2010, 13).

Integrazio soziolinguistikoaren ezaugarriak aztertzeke, prozesua baldintzatzen duten aldagaiak kontuan hartu behar dira. Horietako batzuk etorkinei eurei dagozkie, hala nola, migrazioaren oinarrian egon diren arrazoiak eta nolakotasunak (ikus 3.3.1 atala), eta eurekin dakarten hizkuntza-errepertorioak edota bizipen linguistikoak. Horrez gain, agerian jarri behar da etorkinen migrazioaren konfigurazioan jatorriarekiko duten harreman afektibo edo identitarioak eta harrera-gizarteko hizkuntzekiko dituzten jarrerak. Beste ezaugarri batzuk, ordea, harrera-gizarteari dagozkie, esate baterako, gizartearen egoera soziolinguistikoarekin loturikoak, lege-markoa (hizkuntza eskakizunik dagoen nazionalitatea lortzeko esate baterako),

⁴ Interesgarria da *etorkin* / *immigrante* terminoen eta *atzeritar* terminoen arteko ñabardura bereizgarriak gogoratzea. *Etorkin* / *immigrante* hitzek gizarte-baldintza bati egiten diote erreferentzia, eta *atzeritar* terminoak, aldiz, estatus juridiko-politiko bati. Kontuan hartzekoa da atzeritar guztiak (sozialki) etorkinak ez diren bezala, etorkin guztiak ez direla nahitaez atzeritarak (ikuspegi juridikotik begiratuta) (Sayad 1984, 103). Ikerketa honetan *etorkinen* edo *immigranteen* integrazio soziolinguistikoa aztertu dugu.

baldintza ekonomikoak hizkuntzak ikasteko, lan-baldintzak, edota etorkinen eta euren hizkuntzekiko autoktonoek dituzten jarrerak.

Azterketa hasi aurretik, ordea, *Integrazio sozial* eta *Integrazio soziolinguistikoaren* marko kontzeptualaren oinarrizko informazioa eskainiko da ondorengo ataletan, marko horretan analizatuko baitugu Gipuzkoan bizi diren latinoen integrazio soziolinguistikoa.

3.3 ETORKINEN INTEGRAZIO SOZIALA

Migratzailearen integrazio sozialaren ikuspegi desberdinak daude ikertzaile eta eragileen artean. Oro har, migratzaileak harrera-gizartean barneratze-prozesuari esaten zaio integrazioa, baina agerikoa denez, barneratze horrek oso modu desberdinak har ditzake, hitz berarekin errealitate eta xede desberdinak irudikatu baitaitezke. Horrela, batzuetan integrazioa asimilazioaren sinonimotzat jotzen da, askotan kutsu ezkorra hartuta; eta besteetan, aldiz, integrazioak esanahi irekiagoa hartzen du, migratzailearen eta harrera-gizartearen artean alde biko harreman eta onarpen batekin lotzen baita (Zabalo et al. 2010, 13).

Esan behar da immigrazio-fenomenoei lotutako *integrazio* kontzeptuak kritika zorrotzak jaso izan dituela, neurri batean, alde bakarreko prozesua balitz bezala ulertzeko arriskua duelako berekin (Giménez 2010, 2:20). Zehaztu nahi dugu, ordea, ikerketa honen testuinguruan *integrazio* kontzeptua "immigratutako herritarrak eta bertakoak *elkarri egokitze*ko ahalegin gisa ulertzen" dugula, hain zuzen, Giménezek planteatzen duen *interkulturalitatearen* (edo *kulturartekotasunaren*) baitako azterketa- eta kudeaketa-marko orokorraren baitan (Giménez 2010, 2:20). Gogoratzea komeni da honako hiru ardatzen inguruan antolatzen dela *kulturartekotasunaren* kontzeptua:

- a) Bestearen kultura errespetatzeari dagokion *ardatz etikoan*, b) diferentziarako edo kultura-askatasunerako eskubidearen *zuzenbide-ardatzean* [...] eta c) ... *eragin-truke positiboa* eraikitzearen dimentsioan. (Giménez 2010, 2:40)

Definizio laburra erabiliz laburbildu dezagun kontzeptua:

Kulturartekotasuna kultura-pluralismoaren baitan sortutako beste adierazpide bat da. Desberdina dena ez ezik, komuna dena ere berresten du eta, alde horretatik, kulturalki elkarrengandik bereizita dauden gizabanako eta kolektiboen arteko

harremanetan berdintasuna, askatasuna eta eragin-truke positiboa sortzen duen praxia bultzatzen du (Giménez 2010, 2:28).


Horrela, integrazio soziala gerta dadin migratu den biztanleriaren eta harrera-gizartearen artean balioen partekatzea eta harreman sozioekonomikoen interdependentzia gertatu behar da (Abercrombie, Hill, eta Turner 1986). Espero izatekoa da, beraz, integrazioaren prozesuak talde sozial desberdinek komunitate berrituaren baitan balioak partekatzea eta interdependentzia-harremanak ezartzea ahalbidetuko duela (Moreno Fernández 2009, 131).

Esan bezala, azterketaren eta aplikazioaren marko horretan kokatuko da ikerketa honetan egin den integrazio soziolinguistikokoaren analisia.

3.4 INTEGRAZIO SOZIALAREN PIRAMIDEA

Arestian aipatu den moduan, integrazioa bi norabidetan gertatzen den prozesu bat da, alegia, autoktonoak eta etorkinek gizartearen antolakuntza berritzen duten prozesu etengabea (Moreno Fernández 2009, 131–32). Prozesu horren azterketarako markoa Moreno Fernández soziologoak *Migrazioaren teoriaren* baitan proposatutako *Integrazio sozialaren piramidearen* eredua izango da (Moreno Fernández 2009, 133). Ondorengo da aipaturiko piramidearen eskema eta eskema horren inguruko argibidea:

1. Irudia: Integrazio-prozesuaren piramidea



Iturria: (Moreno Fernández 2009, 133)

- **0 FASEA. Biziraupeneko integrazioa.** Harrera- edo xede-lurraldera heldzerakoan migratzaileek bizi duten egokitzapen-prozesua da honako hau. Aurreikus daitekeen bezala, fase hori migratzaileek dituzten baliabide ekonomiko, sozial eta humanoek baldintzatzen dute, eta oinarrizko betebeharrak asetzeko gaitasunaren araberakoa izango da (Moreno Fernández 2009, 132).
- **1 FASEA. Integrazio laborala edota eskolakoa.** Fase horrek azaltzen du lan-merkatuan sartzeko edo, haurrak dauden kasuetan, eskola-sistemara heltzeko migratzaileek pasa behar duten prozesua da. Fase honetan murgiltzeko, aurreko integrazio-fasea gaingituta izan behar dute migratzaileek, alegia, oinarrizko betebeharrak ase izan behar dituzte. Alegia, beste modu batean esanda, lan-munduan eta eskolan integratzeak adierazten du harrera-gizartean etorkinak lana eta funtzio sozialak betetzeko moduan dela.
- **2 FASEA. Integrazio soziala** gertatu dadin gizarteko interakzioak aktibatu behar dira halabeharrez; interakzio horien maiztasunak eta intentsitateak eragin zuzena du etorkinen gizarteratze-prozesuan. Jakina, integrazio sozialak lotura du norbanako edo taldekide modura harrera-gizarteko ekimenetan parte hartzearekin. Aztergai dena da etorkinen eta harrera-gizarteko biztanleen artean zer nolako harreman edo bizitza soziala gertatzen den bertan. Esan gabe doa, integrazio sozial horiek ahalbidetu behar dutela etorkinen nortasuna eta bizitza soziala garatzea (Moreno Fernández 2009, 132–33).

Kontuan izan behar da fase honetan bereziki etorkinen eta bertakoen arteko kontaktu horietan sortzen diren jarrerak funtsezkoak direla integrazioaren eraikuntza-prozesuan; izan ere, jarrera horien arabera norabide desberdineko egoerak sor daitezke: alde batetik, atzerritar jatorriko biztanleen eta haien ohituren aurkako kritika ezkorra garatu daiteke, zeinaren muturreko adierazpena *xenofobia* eta *arrazakeriako* agerpenak diren, eta, bestetik atzerritar jatorriko biztanleen eta haien ohituren aldeko *onarpena* (Moreno Fernández 2009, 135 – 36); bi mutur horien artean gertatzen da egokitzapen-prozesua, hain zuzen, etorkinen integrazio sozialaren nolakotasuna definituz.

- **3 FASEA. Identitate-integrazioak** etorkinen eta harrera-gizartearen arteko harreman sozial konplexuak sortzen ditu, eta prozesu horren garapenean migratzaileek beren lekua egiten dute harrera-gizartean, egokitzen-prozesu bat gertatzen baita. Nortasun edo identitate hori garatzeak ez du esan nahi etorkin guztiek identitate berdina garatzen dutenik, autoktono guztiek identitate berbera ez duten moduan. Esate baterako, migratzaileek oso ezaugarri desberdineko integrazio identitarioa gara dezakete, adibidez, jatorrikoarekiko harremanak gordetzen, aldatzen edo alboratzen dituztenaren arabera. Etorkinen eta harrera-gizartearen artean sortzen diren harreman identitario berri konplexuek baldintzatzen dute gizarteak egiten duen egokitzen-prozesua.

Integrazio sozialaren piramidearen markoan egokiturik, beraz, aztertuko dugu ondorengo atalean azalduko dugun etorkinen *integrazio soziolinguistikoa*.

3.5 INTEGRAZIO SOZIOLINGUISTIKOA

Migratzen duten biztanleentzat hizkuntzaren gaia ez da beti xede-lurraldea hautatzeko erabakigarria izaten, sarritan, jatorritik ateratzeko ez baitiote xede-lurraldeko hizkuntza-egoerari begiratzen. Baina, xede-lurralde hori hautatzeko aukera baldin badute migratzaileek, hizkuntzak pisu esanguratsua har dezake norabidea erabakitzeko orduan; hau da, esan daiteke, sarri, migrazioa eta hizkuntza elkarrekin doazen aldagaiak direla. Migrazioa eta hizkuntzen arteko harreman hori aztertzeko kontuan izan behar dira, batez ere, honako bi egoera hauetan (Gutiérrez 2013, 18):

- 1) Hizkuntza bera hitz egiten duten bi komunitateren arteko fluxua dagoenean, betiere, faktore ekonomiko nagusiak, hots, errenta-diferentziak eta enplegu-aukerak hala bultzatzen badute. Horren adibide da, esate baterako, aztertzen ari garen kasuan, gaztelania hizkuntza partekatzen duten bi lurralde artean, Gipuzkoara migratzen dutenen latinoen kasua; beraz, aurreikustekoa da latinoen migrazio-prozesuan hizkuntza aldagaiak garrantzia izatea, eta xede-lurraldeko egoera linguistikoarekiko espektatiba zehatz positiboak izatea.
- 2) Hizkuntza bera partekatzen ez duten lurraldeen artean, kultura- eta hizkuntza-jatorri bereko etorkinen komunitateak migrazio-fluxua errazteko eta handitzeko beharrezkoak diren sareak baldin badaude. Horren adibidea

da, esate baterako, Gipuzkoan euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bateko hiztun-komunitateko kideak jatorrizko estatutik abiatuta xede-lurraldeko komunitatera bideratzen direnean. Kasu horietan ere, xede-lurraldean egoera linguistiko arrotza izan arren hiztun bereko komunitateko kideen harremanen espektatiba zehatz positiboak sortzen dira.

Arestian esan da migratzaileek xede-lurraldean egiten duten integrazio soziolinguistikoa integrazio sozialaren parte dela, eta prozesu sozial horrek baldintzatzen duela linguistikoa. Azterketa hori egiteko, funtsean, aurreko atalean azaldutako integrazio sozialeko lau faseko prozesuan hizkuntza-gaiek zein leku hartzen duten analizatuko dugu; esan gabe doa, gizarte hartzailearen ezaugarri soziologikoak ere kontuan izatea baldintza garrantzizkoa dela integrazio soziolinguistikoz aritzeko, eta, batez ere, egoera soziolinguistikoaren konplexutasun-maila aintzat hartu behar da (Paredes García 2020, 59). Oro har, Moreno Fernándezen proposamenari jarraiki, ondorengo taulan ezarri dira kontuan izan beharreko aldagaiak (Moreno Fernández 2009, 139–41):

1. taula. Integrazio soziolinguistikoa baldintzatzen duten ezaugarri linguistiko orokorrak (etorkinak eta harrera-gizartea)

Etorkinen ezaugarri linguistikoak	Harrera-gizarteko ezaugarri linguistikoak
1) Elebakarrak edo eleaniztunak diren (hizkuntza-errepertorioa).	5) Gizarte elebakarra edo aniztuna den (hizkuntzen presentzia soziala, ekonomikoa eta politikoa, hizkuntza errepertorioa).
2) Harrera-lurraldean hizkuntza bat baino gehiago dagoen kasuetan hizkuntza hegemonikoa ezagutzen duten, edo zein den harekiko afinitate-maila.	6) Hizkuntza bakarrekkoa den kasuetan, aldaera bat baino gehiago erabiltzen diren.
3) Haien jatorrizko hizkuntza ospe handikoa edo txikikoa den.	7) Hizkuntza gutxitua (edo minorizatua) baldin badago hizkuntza hori ezagutzearen ondorio sozialak zein diren.
4) Harrera-gizarteko hizkuntzekiko dituzten jarrerak	8) Harrera-lurraldeko biztanleen jarrerak etorkinen hizkuntzekiko

Iturria: Egileak Moreno Fernández oinarri hartuta (Moreno Fernández 2009)

Latinoen artean gehienak gaztelaniaz elebakarrak izan ohi dira (1)⁵, xede-gizarteko hizkuntza hegemonikoa hitz egiten dute (2), hain zuzen, jatorrian zein xede-lurraldean ospe, presentzia, eta erabilera handikoa den hizkuntza (3).

Nolanahi ere, kontuan izatekoa da etorkinen aldaer(ar)en eta harrera-gizarteko aldaeraren artean distantzia linguistiko bat egon daitekeela; eta distantzia horrek gaztelaniako aldaeren arteko hierarkizazioak sor ditzakeela, hizkuntza sozializazioa baldintzatuz (integrazio soziolinguistikoa) (Moreno Fernández 2009, 139). Alegia, gerta daiteke xede-gizartean latinoen hizkera markatua eta hierarkizatua izatea biztanle autoktonoen aldaerarekin erkatuz, zenbait kasutan *arrazakeria linguistikoko ideologiak* zuzendutako portaerak agerian jarritz. Alonso ikertzailearen iritziz (Alonso 2020) ideologia horren inguruko portaerak oso kontuan hartzekoak dira⁶; horren lekukoak beste ikerketa batzuetan ere agerian jarri izan dira (Rosa eta Flores 2017):

Espainian bizi diren Latinoamerikan jatorria duten biztanleen kasuan, haien ama-hizkuntza gaztelania da, baina penintsulako espainiar estandarretik aldentzen diren aldaeretan... Latinoamerikako aldaerak desberdinak izan arren, Espainian Latinoamerikako aldaera bakartzat hartzen dira, gaztelania estandarretik aldenduz. [...] Arrazakeria linguistikoaren ideologietatik abiatuta, Latinoamerikako barietatea eta urritasun linguistikoa erlazionatuta daude, batez ere hezkuntza-erakundeetan. Latinoamerikako gazteei euren hizkera zuzentzen zaie etengabe, eta hitz egiteko moduagatik akademikoki diskriminatuak izan ohi dira (Alonso 2020, 213)

⁵ Metodologia atalean zehaztuko den moduan, kontuan izan behar da ikerketa honetan parte hartu duten latinoen artean ez dagoela jatorrian gaztelaniaz gain beste hizkuntza bat hitz egiten duenik.

⁶ ARRAZAKERIA LINGUISTIKOKO IDEOLOGIAK: hizkuntzak nola entzuten diren eta hiztuna sozialki nola kategorizatzen den ulertzeko, lehenik behatu behar dira gizarte zehatz bateko botere-harremanak. Desberdintasun sozial horiek desberdintasun politikoak dira eta horiek arrazan oinarrituriko hierarkia historikoetan islatzen dira, zeinak kolonizazioaren bitartez ezarri diren (Alonso 2020, 201). Hizkuntzak ikuspegi linguistiko batetik ezin dira hobeagoak edo txarragoak bezala hierarkizatu, baina horrek ez du esan nahi gizartean hierarkizazio horiek ez daudenik. Alderantziz, esan daiteke, ezaugarri soziopolitiko, historiko, eta ekonomikoek hizkuntzen eta hiztunen arteko hierarkiak ezarri dituztela (Alonso 2020, 202).

Harrera-gizarteko hizkuntza-errepertorioari dagokionean aipatu behar da euskara eta gaztelaniaren izaera koofiziala (5), nahiz eta lehena egoera minorizatuan dagoen, gaztelania hizkuntza hegemonikoaren aurrean. Bestalde, euskara erabiltzeak zein onura ekartzen dieten etorkinei gaztelaniarekin alderatuta kontuan izatea beharrezkoa da. Ikerketa gehienek iradokitzen dute euskarak gaztelaniaren aldean balio txikiagoa duela nabarmen, euskaraz hitz egiten jakitea *komenigarria* bai baina *beharrezkoa* ez dela adierazten baitute (7); gaztelania aldiz, *beharrezkoa* da zalantzarik gabe (Uranga eta Aierdi 2021).

Beraz, ikerketa honetan, saiatuko gara etorkinek harrera-gizarteko hizkuntzekiko (4) dituzten jarrerak aztertzen⁷.

Nolanahi ere, latinoen jarreraren berri eman behar dugunez, *komenigarria* da gogoratzea hizkuntza-jarreraren inguruko ideia nagusiak. Izan ere, gaia bere osotasunean aztertzea ikerketa honen dimentsiotik harago doa, baina hurbilketa labur bat egitea interesgarria izan daiteke.

Psikologia sozialean definitu izan den eredu *tridimentsionala* erabiltzea proposatuko dugu ikerketa honetan. Eredu horren arabera, honako hiru dimentsiotan oinarritzen dira jarrerak: alderdi *kognitiboa*, *afektiboa* eta *konatiboa*. Esparru *kognitiboa* hizkuntzekiko "iritziek, aurreiritziek eta sinesmenek" osatzen dute, alderdi *afektiboa* hizkuntzekiko "sentimenduek", eta alderdi *konatiboa* "jokaeretarako prestutasunak" (Joly Charrasse eta Uranga Arakistain 2010, 209)⁸.

Testuinguru horretan, beraz, egingo diogu etorkinen hizkuntza-jarrerei hurbilketa. Aztertuko dugu zein diren etorkinek dituzten euskararekiko iritziak eta irudiak,

⁷ Aldiz, ikerketa honetan ez dugu aztertzeiko aukerarik izan autoktonoek migratzaileen hizkuntzekiko dituzten jarreraren azterketa egiteko (8), gai garrantzizkoa den arren.

⁸ Gogoratu behar da, halere, beste egile batzuek eredu hori zalantzan jarri izan dutela *afektibitatearen* dimentsioari zentraltasuna emateko, eta alderdi kognitiboa eta konatiboa dimentsio horren mende jarri (Pallí Monguilod et al. 2019, 13). Bi ereduak, halere, bat egiten dute honako hau adierazterakoan: Gai jakin baten gaineko jarrerak gai horri buruz ditugun iritziak, eta sortzen dizkigun sentipenak edo erreakzioak biltzen dituzte, inplikazioa edo konpromiso pertsonala eragiten dute, eta, azken finean, gai horren inguruan sentimendu positiboak edo negatiboak sortzen dituzte. (Pallí Monguilod et al. 2019, 13).

horretarako, begiratuko dugu zer-nolako kontaktua izan duten euskararekin, edo zein den ikusi duten euskararen erabilera. Era berean, garrantzizkoa izango da begiratzea zein den euskararen inguruan hautematen duten ospea, eta gizarteratzeko ematen dioten balioa (balio instrumentala⁹, identitarioa edo sinbolikoa¹⁰), eta zein den euskararekiko eta euskal kulturarekiko erakusten dituzten iritziak. Azkenik, euskara biziberritzeko egiten den hizkuntza-politikaren inguruan dituzten iritziak ere bildu dira, horiek guztiek eratu dezaketelako, neurri batean behintzat, euskararekiko eraikiko dituzten jarrerak, eta jarrera horiek moldatu dezaketelako jokaeretarako prestutasuna.

Egoera diglosiko honen aurrean, agerian gertatzen da integrazio soziolinguistikoak planteatzen dituen erronkak, izan ere, beste ikertzaile batzuek marko teorikoa bera ondo landu beharraz gogoeta egiten dute (Zapata Solano 2024):

Gurea bezalako testuinguru soziolinguistikoetan, integrazio sozialak eta hizkuntza integrazioak ez dute zertan loturik egon behar, disoziazio bat egon daiteke. Izan ere, bizindar etnolinguistiko ahula duten komunitateen ikuspuntutik, kultura eta/edo hizkuntza integrazioaz aritzeak harrera herrialdean dagoen asimetria mahai gainean jartzea ekartzen du (Zapata Solano 2024, 5).

Arrazoi horiengatik, erronka horiei aurre egiteko bideak planteatzea interesgarri dirudi. Bereziki, arreta berezia eskatzen du hizkuntzak kontuan hartuta, immigrazio soziolinguistikoa gerta dadin migratzailearen integrazio-prozesua errazteak. Hau da,

⁹ Jarrera instrumentala: hizkuntza edo aldaera zehatz hori hitz egiteak dakartzan onurak kontuan hartuz, horren alde ekiteko joera. Onura horiek ekonomikoak edo sozialak izan daitezke. Jarrera instrumentala motibazio pragmatiko modura ere ulertu ohi da, arrakasta motibazio edota truke-ordaineko jarrera modura ere definitzen da. (Joly Charrasse eta Uranga Arakistain 2010, 213)

¹⁰ Jarrera integratzailea: hizkuntza horretarako erkidegoaren parte izateari edo izan nahiari erantzuten dio. Hizkuntzen identitate-emaila izaeran ere adierazten da, baita atxikimendu-sentimenduarekin ere. Hizkuntza-erkidegoaren parte direnen eta izan nahi dutenen joera adierazten du. Jarrera integratzailea motibazio sinbolikoarekin lotzen da, eta jarrera izan arazle modura ere definitu izan da euskal tradizioan. (Joly Charrasse eta Uranga Arakistain 2010, 213)

harrera-gizarteak prozesu hori ahalbidetu beharko luke euskararen inguruko informazioa, presentzia eta irisgarritasuna fase guztietan ziurtatuz.

4 METODOLOGIA

4.1 IKERKETA KUALITATIBOA

Ikerketa honetan metodologia kualitatiboa erabili da parte-hartzaileen pertzepzioak eta iritziak modu sakonean aztertzeko (Mayan 2009). Metodologia kualitatiboa honako kasuetan erabiltzen da nagusiki: gertakari baten aurrean egon daitezkeen ikuspuntu, jarrera eta iritzi ezberdinak sakontasunez ezagutzeko eta gertakari edo gai baten bilakaeran sakontzeko eta etorkizunerako lan-ildoak aurreikusteko, sormen-lana bultzatzeko eta taldekako hausnarketa sustatzeko (Hernández García 2010, 294–95). Metodo honen bitartez, migratzaileei eragiten dioten faktore sozialen artikulazio konplexuen eta arrazoi historiko, politiko eta sozioekonomikoen analisia egin da (Barriga 2015, Silva-Corvalán 2001) eta hizkuntzen gainean, eta, zehazki, euskararekiko duten jarrera aztertu da. Beraz, ikerketa kualitatiboa izanik, lan honek ulermena eta interpretazioa ditu helburu nagusi, subjektibotasuna antzemateko esperientzia pertsonalak eta sentimenduak kontuan hartu dira.

Ikerketa guztietan bezala, eta kualitatiboan batez ere (ikerketa mota honen subjektibotasun maila kontuan hartuta), garrantzitsua da ikerketa printzipioei jarraitzea emaitza ahalik eta fidagarrienak lortzeko asmoz (Potts eta Brown 2005, 269). Kasu honetan, zorrotasun zientifikoa bermatzeko erabili ditugun irizpideak honako hauek dira: informazioa modu sakonean aztertzea, datuei eta emaitzei buruzko ikuspegi kritikoa garatzea eta sinesgarritasuna eta baieztapena bermatzea.

4.2 DATUEN BILKETARAKO TEKNIKAK

Ikerketa-teknika gisa erdi-bideratutako elkarriketak erabili dira nagusiki (16 elkarriketa). Ikerketa-teknika hau “baliagarria da parte hartzen dutenen interpretazio pertsonala ezagutzeko eta emandako iritziak jasotzeko ere” (Bujan Vidales 2001, 136).

Esan behar da elkarriketa sakona gizarte-zientzietako hainbat diziplinatan oso hedatua dagoen teknika dela, besteak beste, soziologian eta antropologian.

Hernándezek dionez (Hernández García 2010, 302) “bi subjekturen arteko aurrez aurreko interakzioa da, bata ikertzailea eta bestea elkarriketatua. Oinarrian komunikazio-egoera bat da eta emaitza positiboak lortzeko komunikaziorako bideak, eta estrategiak zein baldintzak garatu behar dira elkarriketari loturiko zeregin guztietan zehar”.

Elkarriketa guztiak audioz grabatu dira, eta gero, transkribatu egin dira, datu Pertsonalak Babesteko legedia betez. Gainera, parte-hartzaileei grabaketarako baimena eskatu zaie. Dokumentu horretan proiektuaren xedea aipatzen da, baita testigantzak kudeatzeko modua eta grabazioen erabilera posibleak ere.

Erdi-bideratutako elkarriketak gidatzeko, aldeztatik prestatutako gidoi bat erabili da. Dokumentu horretan solasaldirako proposatutako gaiak jaso dira; helburua izan da elkarriketa bideratzea, baina, aldi berean, parte-hartzaileari nolabaiteko askatasuna ematea haien historia kontatzeko, eta nahi izanez gero, galdetegitik momentu konkretu batzuetan ateratzeko. Gidoian malgutasunak aberastasuna ekar dezake, parte-hartzailea aurreikusi gabeko gai interesgarriak buruz aritu daitekeelako¹¹.

4.3 LAGINA

Lagina diseinatzeko aintzat hartu dira parte-hartzaileen gaiarekin lotutako berezitasunak eta zein ekarpen edo baliagarri dituzten analisi tematikorako eta ikerketa galderei erantzuteko (Mejía Navarrete 2000, 166). Kontuan hartu diren faktoreak hauek izan dira: jatorria (jatorrian gaztelania ofiziala duten Erdialdeko eta Hego Amerikako estatu desberdinak), adina (helduak edota gazteak dira, adinak bidera dezakeelako euren hizkuntza-jarrerak, -bizipenak eta -beharrak), generoa (migrazio zehatz hori generoarekiko oso markatua delako, zehazki, oso feminizatua), lanbidea (interesgarria delako gaur egun jarduera ekonomiko nagusi biren arteko lekukotasunak biltzea, zaintza eta merkataritza), eta gaur egungo bizilekua (egoera

¹¹ Eranskinean ikus daiteke gidoia bere osotasunean.

soziolinguistiko desberdinetako lekukotasunak jaso nahi izan direlako)¹². Hona hemen egindako laginketari buruzko datuak:

ATLAS TI kodea	Maskara izenak		SEXUA	ADINA	LANBIDEA	BIZILEKUA	JATORRIA
Sara	Sara	1	EMAKUMEA	HELDUA (>30 URTE)	ZAINTZA	Irun	Honduras
D1	María	2	EMAKUMEA	HELDUA (>30 URTE)	ZAINTZA	Donostia	Honduras
D2	Juan	3	GIZONA	HELDUA (>30 URTE)	MERKATARITZA	Donostia	Argentina
O1	Elena	4	EMAKUMEA	HELDUA (>30 URTE)	BESTE LANBIDEA	Oiartzun	Venezuela
O2	José	5	GIZONA	HELDUA (>30 URTE)	BESTE LANBIDEA	Oiartzun	Nikaragua
G1	Teresa	6	EMAKUMEA	GAZTEA (<30 URTE)	BESTE LANBIDEA	Ordizia	Honduras
G2	Lucía	7	EMAKUMEA	HELDUA (>30 URTE)	ZAINTZA	Ordizia	Nikaragua
G3	Ana	8	EMAKUMEA	HELDUA (>30 URTE)	MERKATARITZA / OSTALARITZA	Ordizia	Ekuador
G4	Carmen	9	EMAKUMEA	HELDUA (>30 URTE)	ZAINTZA	Segura	Bolivia
T1	Miguel	10	GIZONA	HELDUA (>30 URTE)	IKASLEA	Tolosa	Nikaragua
T2	Pedro	11	GIZONA	GAZTEA (<30 URTE)	BESTE LANBIDEA	Tolosa	Nikaragua
UK1	Luisa	12	EMAKUMEA	HELDUA (>30 URTE)	ZAINTZA	Zumaia	Txile
DB1	Rosa	13	EMAKUMEA	GAZTEA (<30 URTE)	BESTE LANBIDEA	Eibar	Venezuela
DB2	Clara	14	EMAKUMEA	GAZTEA (<30 URTE)	BESTE LANBIDEA	Eibar	Nikaragua
DB3	Alba	15	EMAKUMEA	HELDUA (>30 URTE)	ZAINTZA	Eibar	Kolonia
DB4	Sofía	16	EMAKUMEA	HELDUA (>30 URTE)	ZAINTZA	Eibar	El Salvador

Lagina osatzerakoan garrantzi berezia eman zaio emakumeen presentziari, batez ere, Gipuzkoara heltzen den populazio latinoaren artean gehiago nabarmena delako. Horrez gain, kontuan izan behar da hizkuntzaren etxeko kudeaketan emakumeek izan ohi dutela rol garrantzizkoa, bai etxeko transmisioan zein erabileran ere, hau da, belaunaldiz belaunaldiko transmisioan, eta, baita, haurren heziketa-prozesuan eskolarekin harremanetan ere, non hizkuntzaren transmisio soziala gertatzen den. Euskararen kasuan ere emakumeen rol hori aztertua izan da (Altuna Ramírez eta Hernández García 2018), eta, badirudi, etorkinen kasuan ere, antzeko funtzioa hartzen dutela emakumeek.

¹² Kontuan izan behar da, parte-hartzaileen artean ez dagoela jatorriz gaztelaniaz gain beste jatorrizko hizkuntza bat hitz egiten duen hiztunik. Gai hori, berariaz lantzea komenigarria izan daiteke, hizkuntza gutxituen artean gerta daitezkeen harremanak hobeto ezagutzeko. Ez da, momentuz, ikerketa-gai horri heltzeko aukerarik izan.

Bestalde, aipatu behar da lagina mugatzeko, *saturazio printzipioa* erabili dela, hau da, ikerketa kualitatiboetako analisi-prozesuan ohikoa den moduan informazio berririk ateratzen ez denean, lagina osatutzat ematen da (Marshall 1996). Eta hala egin da ikerketa honetan ere.

4.4 DATUEN KUDEAKETA ETA ANALISIA

Datu-bilketaren fasean jasotako informazioa modu sistematizatuan antolatu da. Testigantzak audioz jasota transkribatu egin dira; parte-hartzaileen izenak kodetu dira anonimotasuna eta pribatutasuna bermatzeko, eta, maskaratutako izenak esleitu zaizkie. Behin corpusa antolatuta, aldezturik diseinatutako ikerketa-gai zerrendatik abiatuta, testigantzak arakatu dira eta oinarritzko ideiak jaso dira, analisi sakona hasi baino lehen (Bujan Vidales 2001, 136). Azterketa kualitatiboetan gomendatzen den bezala, bi ikertzaile aritu dira analisi lanean emaitzen fidagarritasuna bermatzeko (Potts eta Brown 2005, 269).

Jasotako datuak lantzeko, *Atlas.ti* ikerketa kualitatiborako tresna erabili da, baliagarria delako datu kualitatiboak antolatzeko, analisi-prozesua modu sistematizatuan egiteko eta emaitzak modu errazean gurutzatzeko. Gainera, ikerketa kualitatiboen emaitzei ziurtasun handiagoa eta zehaztasun zientifikoa ematen die.

Kasu honetan, testigantzak aztertzeko, analisi tematikoa egin da, "kategoria aglutinatzaileen" sistema erabiliz (Bujan Vidales 2001, 137). Ikerketaren gai orokorretatik maila altuagoko "gaiak" eta "kategoriak" edo azpigaiak sortu dira; eta erantzunetatik ateratako ideia zehatzak maila baxuko "kodeak" bihurtu dira. Kode horietatik, gai bakoitzaren ideia orokorrak edo "titularrak" atera dira, eta horiekin emaitzak interpretatu dira. Guztira 10 gai, 39 kategoria eta 154 kode atera dira.

Ikerketa-oharra

Ikerketa honek *Hartutako zorraren printzipioa* (Moreno Fernández 2009, 153) du oinarrian. Printzipio horren arabera, komunitate bateko kideen datuak lortzen dituzten soziolinguistak behartuta daude ondorioztatutako ezagutza komunitatearen mesedetan erabiltzera, komunitateak hala behar duenean. Beraz, integrazio soziolinguistikoaren azterketatik lor daitekeen ezagutza komunitatearen bizikidetzarako helburu bidezkoagoak eta solidarioagoak bihurtzen lagungarri izatea

du helburu, eta, kasu honetan, migrazio berrien kudeaketan gizarteratzea erraztea eta hobetzea.

5 IKERKETAREN EMAITZAK

Ikerketan bildutako informazioaren bolumena handia da oso, eta, sarri, ikuspegi soziolinguistikotik haragoko elementuak biltzen ditu bere barnean. Ikerketaren emaitzak eskaintzeko orduan, ordea, argitasunaren mesedetan soilik ikerketa-gaiari dagozkion elementuetan arreta jarri da. Gai bakoitzaren inguruan informatzaileek emandako ikuspegia kontakizun batean laburtu da eta, sarritan, aipamen edo iritzi desberdinak agertu arren, nagusitu den ikuspegiaren sintetizatu dira posizioak. Sintesi-lan hau elkarrizketen transkripzioetatik eratorritakoa da, eta errazago irakurtzeko xedearekin, aipu literal gutxi batzuk soilik (jasotako hizkuntzan) ekarri dira dokumentu honetara.

5.1 INTEGRAZIO SOZIALAREN BIZIRAUPENeko FASEA (0 FASEA)

5.1.1 Migrazio-prozesua martxan jartzen dituzten arrazoiak

Etorkinen integrazio soziala aztertzeko migrazioaren abiapuntuan haien egoera emozionala eta intentzionala kontuan hartu beharreko elementuak dira. Erdialdeko eta Hego Amerikako herrialde ezberdinetatik Gipuzkoara iritsi diren biztanleek askotariko moduak eta arrazoiak izan dituzte migrazio-prozesua abian jartzeko. Dokumentu honen sarreran esan da migratzeko erabakiak ez dituztela gehienetan pertsonak bakarka hartzen, familietan baizik, horiek nolabaiteko *migrazio-agentziak* bilakatu direlako eta prozesuaren oinarri eta laguntzaile direlako. Eta, hala dela baieztatu dugu ikerketa honetan ere: bertan parte hartu duten etorkinek lehenagotik etorritako familia artekoek edo lagunek lagunduta eman dute migrazioaren lehen pausua, haien bidetik, eta, aldamenean zituztela.

Familia elkartzea, pobrezia-egoeretatik aldendu nahi izatea, bizi-baldintzak hobetzeko ahalegina egitea, lan-bila abiatzea edota egoera pertsonal orokorra aldatzeko beharra izan dira etorkinek aipatzen dituzten migratzeko prozesua hasteko arrazoiak, gaur egungo nazioarteko migrazio-mugimendu handietan gerta ohi den bezala (ikus 1.1 atala). Arrazoi horien artean, jakina, batzuk besteak baino maiztasun

handiagorekin ageri dira gure ikerketako lekukotasunetan ere, eta, ikusi ahal izan da lotura sendoekin osatutako arrazoi-multzo konplexuak daudela prozesuaren hasieran.

Zehatzago esateko, lekukotasunek baieztatzen dute aipaturiko abiapuntuko arrazoi hauek:

- **Jatorrizko lurraldeko pobrezia ekonomikoko egoera gainditu nahi izan dute, eta lan-aukera hobeak bilatzeko ahalegina egin dute;** Gipuzkoara etortzeko bulkada herrialde horretako egoera ekonomiko hobe dela espero izatea da, lan-merkatu aberatsagoa delako informazioa aurrez bildu baitute.
- **Egoera sozial eta pertsonala aldatzeko nahia ere sarri aipatzen dute etorkinek** (pobreziari erreferentzia egin gabe). Askotariko arrazoiak biltzen dira. Batzuetan, ikasketak egitera mugitu dira euren herrialdeetatik edo arrazoi zehatzik ematen ez badute ere, euren bizitzetan aldaketen bila joatearen nahia adierazi dute.

[Sara]¹³ ..., pues mis primas desde aquí me decían, prima véngase para acá, porque, el negocio no iba bien, teníamos ya una crisis mundial ahí estamos ahora peor,

- **Aurretik etorritakoekin harremanak izatea** izan da migrazioa gerta dadin arrazoi garrantzizkoa: kasu batzuetan familiako kideren bat lehenago etorria zuten, eta haiekin harremana mantenduz heldu dira Gipuzkoara. Beste batzuetan, aurretiko harreman horiek bertakoekin izan dira, eta horrek erraztu die abiatze-prozesua.

[María] En eso me vine para acá donde mi prima en Villabona y a Villabona vine. Al llegar aquí vine adonde ella, al trabajo de ella. Porque ella adonde vivía, trabajaba. Y ya no había problemas porque digamos que allá era su casa. Y me acogió un mes.

[Luisa] Y bueno en diciembre ya estábamos aquí. Y vinimos aquí porque conocimos en Buenos Aires a un vasco que nos invitó a venir a su casa, sí. Y luego la cosa no fue muy bien, pero bueno.

- **Familia elkartzea.** Euren jatorrizko lurraldean familia artekoren bat utzita heldu dira Gipuzkoara, eta horrek egoera emozional gogorra eragiten diete. Familia

¹³ Ikerketan parte hartu dutenen anonimotasuna ziurtatzeko izenak fiktizioak dira.

elkartzea izan ohi da, kasu horietan, egoera horri aurre egiteko migratzaileen lehentasunezko helburua eta haien migratzeko arrazoia.

[María] Porque en mi país yo tengo un hijo. Tengo un hijo de trece años y ya no me daba para mantenerlo y entonces tuve que salir del país. No hay trabajo tampoco. Y ahí fui buscando yo trabajos diferentes.

Esan daiteke, beraz, nagusiki bi multzotan biltzen direla etorkinen migratzeko haserako arrazoiak; alde batetik jatorriko egoeratik aldenduz (pobreziatik aldentzeko edo bestelako arrazoiak tarteko) bizitzarako aukera hobeak bilatzeko ahalegina, eta, bestetik, prozesua aurrez abian jarri dutenei jarraitzea, edo haien deiei erantzutea.

5.1.2 Harrera-gizartean lehen kontaktuak

Etorkinek harrera-gizartera heltzerakoan, bertan modu ofizialean kokatzeko, etxebizitza lortzeko, oinarrizko zerbitzuetara heltzeko eta gainerako bizitzeko beharrak asetzeko prozesuari *migrazio-prozesuaren biziraupeneko integrazioko* fasea deitzen zaio. Alde batetik, modu pribatuan lortu ohi dituzte behar horiek asetzeko baliabideak, (esate baterako, etxebizitza), eta, bestetik, Administrazioetik lotu beharrekoak (errolda edo bestelako dokumentuak). Etxebizitza eskuratzeko adibidez, lehendik eraikitako sareak erabiltzen dituzte, zeinak, aurretik etorritako jatorri bereko etorkinez, familia-kideez, lagunez edo herrikideez osatuta dauden. Bestetik, batez ere udaletan egiten dituzte behar diren izapideak.

- **Etorkinen artean, asko izan dira etxebizitza bat eskuratu ahal izateko ezagunen baten etxean gelditu direnak**, bere kabuz alokairuan hartzeko aukerarik izan artean. Etxebizitza autonomia lortzeko, ordea, ez dute erraztasun handirik izan etorkinek. Kontuan izatekoa da, berez oso konplexua dela xedeherrialde jakin horretan (Gipuzkoa) etxebizitzarako merkaturak, baina, zehazki, etorkinek argi adierazi dute are eta zailago dela eurentzat, eta diskriminazio-esperientziak ere sarri bizi izan dituztela. Zenbait kasutan, gainera, alokairua lortzekotan ere, oso kondizio prekariotan hartu behar izan dutela ere aipatzen dute, esate baterako, halabeharrez pertsona-kopuru oso handiekin partekatu behar izan dutela etxebizitza. Gainera, zenbaitetan, etxebizitza lan-esparru bera da (langile egoiliarren kasuan, esate baterako), eta horrek berak zailtzen du harreman sozialak eraikitzea: etorkin askok etxebizitza eskuratu ez, baizik eta langunea eta bizilekua leku fisiko bera dute.

[Luisa] esa época buscar un alquiler era muy difícil y recién llegados extranjeros, no. No nos daban.

[Pedro] Me llegaron a contar que llegaron a vivir en una en un piso, pues 20 personas. Pues era así todo así hileras, intimidación cero...

- **Bertakotze administratiboan esperimentatzen duten burokrazia zaila, abiapuntuko beldur eta kezken artean, bereziki aipagarria da,** esate baterako udalerrian erroldatzeko orduan. Jakin arren bertako zerbitzu publikoetarako sarbiderako ezinbesteko betebeharra dela izapide hori, prozesua etsigarria egin ohi zaie.

[Ana] Tienes que tener un padrón, tienes que tener un contrato de alguien que te contrate, para tener tarjeta, la primera tarjeta de residencia, no de trabajo. Y es difícil, muy difícil

- **Nolanahi ere, zerbitzuekin harremanetan jartzea izan da hasierako sozializazio-fasean eman beharreko pausu bat.** Kasu honetan, aipagarria da ikerketan parte hartu duten etorkinek behin lehen beldurrak gaindituta, balorazio positiboa egin dutela orohar zerbitzuekin izan duten tratuaekin, emandako informazioa lagungarria izan zaiela adierazi baitute. Kasu zenbaitetan burokraziaren aldetik kexu badira ere, laguntza ezberdinak jaso dituztela azpimarratzen dute, eta gogoeta positiboa egin dute bai udal mailako zerbitzuen inguruan.

[Sofia] Llegamos a Eibar y nos estaban esperando, trabajadoras sociales de La Cruz Roja, y nos llevan a vivir a los pisos que en su momento eran de la diputación creo o del ayuntamiento, arriba de las escuelas de Amaña. Nos reciben, estamos allí por seis meses, que es la primera etapa, mientras presentamos declaración en la policía, y, nos conceden, una tarjeta blanca.

[Lucía] Me vine y estando aquí, he venido a Ordizia. Desde que he venido a vivir a Ordizia, conocí a Ainara enseguida. Ainara es una de las de aquí del Ayuntamiento que lleva el tema de los emigrantes. Y nos ayudan

- **Diskriminazio sozialen berri ere eman dute ikerketan parte hartu duten etorkinek,** esate baterako, etxebizitzara sarbidea izateko edota lan-arloan murgiltzerakoan, edota bestelako adierazpide batzuk ere, etorkin izate hutsagatik, beste biztanleen aho eta keinuetatik ikusi eta nabari izan dituzten bestelako diskriminazio-zantzuak ere.

[María] Vine a sufrir claro, como todos. Como todos venimos a sufrir. Venía a dormir al suelo. Es lo que toca.

[Elena] Creo que, ya llevábamos saliendo como un mes o así todas juntas no sé qué, y un día llegó súper molesta, porque los inmigrantes le habían, venían aquí a quitarle el trabajo a la gente; y me lo decía a mí.

- **Xede-lurraldearekiko ezjakintasunak eta ziurgabetasunak urduritasuna eta beldur-sentimendua eragiten diete.** Administrazioarekin topo egin aurretik, legalki heltzeko zailtasunak sortzen duen kezka kontuan izatekoa da, herrialde berrian legalki integratzeko zailtasunak edo dokumentazio ofizialik ez izatea etorkinentzat kezka-iturri nagusia da. Horrez gain, bakardadeak, ziurgabetasunak eta ezintasunak depresiorako kausa modura kontatu dituzte ikerketa honetan parte hartu dutenen artean.

[Sara] Y dije yo, bueno, parece que ha ido bien la cosa; pero tenía un miedo terrible. Porque venir, bueno, de turista, ¿no? Pero venir sin papeles ni nada, decía uy señor, tengo que mentir que vengo de turismo y me vengo a quedar.

[Miguel] Me entró una depresión, sabe. Porque no tenía para donde salir, no conocía a nadie, ni nada de eso.

Esan daiteke gizarteratzearen fase honetan, lehen pausuak jatorri bereko migratzaileen sareen bitartez ematen dituztela: gutxieneko babesa eskaini ohi diete etorkinei, horrela bertakotzearen lehen urratsa asetzeko aukera emanez. Halere, azpimarratzekoa da gizartearen aldetik diskriminazio-esperientziak ere bizi dituztelako lekukotasunak jaso ditugula ikerketa honetan. Horien artean aipagarriak dira bizilekuak lortze-prozesuan izan ohi dituzten arrazakeriako esperientziak¹⁴.

¹⁴ Zentzu horretan, ikerketa honetan jasotako lekukotasunek bat egin dute beste azterketa batzuek erakutsitakoarekin. Esate baterako, Vicente Torrado ikertzaileak (Vicente Torrado 2023) EAEko etorkinek autoktonoekin alderatuz jasan ohi dituzten desberdinkerien berri ematen du. Honela deskribatzen du egoera: "Migratzaile oro pobrea dela ziurtzat ematen da aldeztu aurretik, eta, hala, higiezin agentzia eta partikular askok zuzenean diskriminatu eta baztertzeko dituzte etorkinak, duten kaudimen ekonomikoa azaltzeko aukerarik ere eman gabe. Horrenbestez, alokairuan den etxebizitza eskuratzeko inolako aukerarik gabe geratzen dira migratzaileak, nahiz eta biztanle autoktono baten baliabide ekonomikoa berak, are, baita gehiago ere, izan. [...] Horiek horrela, migratzaileek, eskura duten eskaintza eskasaren ondorioz alokairuaren prezioak nola igotzen diren ikusteaz gain, oztopo gehigarriak aurkitzen dituzte: adibidez, diru kopuru handiagoak eskatzen dizkiete fidantza, banku-abal edo abal

Horrekin batera, etorkinek Administrazioarekin bizi izan ohi duten ezjakintasun- eta ziurgabetasun-egoerek kezka, beldurra eta antsietatea sortzen diete. Beraz, esan behar da, fase hau, jatorri bereko sareen babesarekin igarotzen badute ere, esperientzia gogorra dela etorkinentzat, batez ere, Administrazioaren aldetik sortzen diren egoerengatik, eta, baita, zenbaitetan, gizartearen aldetik ere. Horrek migratzailea egoera zaurgarrian jartzen duela esan daiteke.

5.1.3 Integrazio soziolinguistikoa 0 fasean

5.1.3.1 Etorkinen eta harrera-gizarteko aldagai linguistikoak

Integrazio sozialaren *biziraupenerako* fase honetan parez pare jartzen dira etorkinen eta gizarte hartzailearen hizkuntza-aldagaiak. Horregatik, atal honetan integrazio soziolinguistikoaren aldagai soziolinguistikoei erreparatuko zaie (ikus 2.3 atala – Integrazio soziolinguistikoa).

Esan dugu arestian migratzaileek xede-lurraldea hautatzeko orduan hizkuntzak ez direla aldagai erabakigarriak izaten beti, baina, sarri kontuan hartzen direla (ikus 2.3 atala – Integrazio soziolinguistikoa). Aztertzen ari garen kasuan, erabakigarria dela pentsa daiteke etorkinek eta harrera-gizarteak partekatzen duten hizkuntza hegemonikoa delako bi lurraldeetan (jatorri- eta xede-gizartean).

Xede-gizartean gaztelania eta euskara hizkuntza ofizialak izateak elebitasun pertsonal eta sozial desberdinak eta ospe-maila eta onarpen politiko-sozial desorekatuak ekartzen ditu.

— **Gaztelaniak pisu eta eragin sozial eta ekonomiko hegemonikoa du Gipuzkoan, eta, beraz, etorkinek hizkuntza hori hitz egiten dutenez, euren integrazio linguistikoa hizkuntza horretan egiten dute.** Gipuzkoako harrera-gizartean euren hizkuntza-, kultura- eta hurbileko identitate-ezaugarriak errazten dute gaztelaniazko integrazio soziolinguistikoa: elebitasun sozialeko gizartean, hizkuntza hegemonikoa lehen hizkuntza modura izateak ziurtatzen diete sozializazio-prozesua, aurreikusi baitezakete ez dutela hizkuntza-arazorik

pertsonal gisa, errentatzaileak beldur direlako ez ordaintzeak izango ote dituzten edo etxebizitzan kalteak jasango ote dituzten”. (Vicente Torrado 2023, 122)

izango, eta aurreiritzi komunak tarteko, ezaugarri kultural eta identitatekoak ez direla oso dibergenteak izango.

Nolanahi ere, kontuan izan behar da etorkinen aldaer(ar)en eta harrera-gizarteko aldaeraren artean dagoen distantzia linguistikoaren ondorioz eratzen diren hierarkizazioak gerta daitezkeela (Moreno Fernández 2009, 139). Beraz, zenbait kasutan *arrazakeria linguistikoko ideologiak* zuzendutako portaerak ondo aztertu beharko dira.

Zer gertatzen da, ordea, euskararako integrazio soziolinguistikoari dagokionean? Noiz izan dute etorkinek euskararen inguruko lehen berria, kontaktua, harremana? Zein dira garatzen dituzten hizkuntza horrekiko jarrerak? Galdera horien erantzunek zedarritzen dute integrazio soziolinguistikoaren aukerak.

- **Euskararen integrazio soziolinguistikoaren aukerak aztertzean** ikus daiteke etorkinek 0 fase honetan egiten dutela euskararekin lehen kontaktua; eta nahiz eta egoera desorekatuan edo minorizatuan dagoen, zenbait kasutan egokitu beharra eska dakiekeela, esate baterako ulertzeko estrategiak abian jarri beharko dutela pentsa daiteke. Fase honetan parez pare jartzen dira hizkuntza gutxituaren aurrean egokitzapen beharrak eta euskaraz hitz egiten ikasteak ekar diezakizkien onurak. Zehazki, Gipuzkoan euskaraz hitz egitearen balioa lorpen eta etekinekin lotzeak euskararako integrazio soziolinguistikorako konbergentzia-egoera bultzatuko du. Lotura hori egin ezean dibergentziara joko du.

Fase honetan (0 fasea) hizkuntzen lekua zein den aztertuko dugu atal honetan. Esate baterako, begiratuko dugu zein den gaztelaniaren eta euskararen kontaktua. Era berean, begiratuko da zein hizkuntza-behar sortzen diren eta zein aukera dauden hizkuntzaren oinarritzko gaitasunak eskuratzeko. Izan ere, gizartean integratzeko oinarritzko betebeharrak horiek asetzeko eta harrera-gizartearen jarraibide soziokulturalak jarraitzeko behar diren gaitasun linguistikoaren garapenak baldintzatuko du integrazio soziolinguistikoa fase honetan (Paredes García 2020, 52).

- **Ikerketa honetan parte hartu duten etorkinek fase honetan integrazio linguistikoa gaztelaniaz egin dute, printzipioz, oztoporik gabe**, nahiz eta aldaeren gaineko desberdintasunak bereizi izan dituzten. Horiek ez dituzte arrazakeriarekin lotu.

— **Etorkinek ez dute euskararen berri izan Gipuzkoara heldu baino lehen.**

Haien kasuan, eleaniztasunaren egoera horrek nolabaiteko ezustekoan harrapatu dituztela aitortu dute.

[Lucía] El primer día que vine dije, pero ¿qué es eso? Yo no sé cómo volteo a ver y digo, pero ¿qué eso? ¿Qué están hablando? ¿Qué están hablando dice? Mi cuñada me dice es que hablan el euskera. ¿Qué es euskera? Ya entonces comencé a investigar y ya me contó Ainara.

— **Badira, ordea, Euskal Herrira etorri baino lehen euskararen berri izan duten etorkinak,** aurretik euskaldunekin izandako harremanetan, eta senitarteko edota lagunek emandako informazioaren bitartez; haiek eman izan diete euskararen berri lehendik, eta era berean, interes pertsonalagatik ere, euskararen inguruko gutxiengo ezagutza bat ere izan dutela zenbait etorkinek.

[Juan] Sí sí. Bueno sabía del euskera, como del catalán como todo, y bueno ya te dije siempre fui muy curioso y me metí. Me vine igual, no tenía problema.

[Miguel] Pues, primeramente pues lo supe porque mi madre me dijo que se hablaba otro aquí, el uskera dijo, uskera algo así, ¿no?

Laburbilduz, ikerketak erakutsi du etorkinek lehenago etorritako kideekin harremanak dituzten arren, gehienek ez dutela euskararen berririk izan Gipuzkoara etorri arte. Ezaugarri horrek, akaso, integrazio soziolinguistikoaren lehen fase hau ezaugarritzen du, alegia, erakusten du lehenik bertan bizi diren kideek ez dietela eman euskararen berri informazio hori ez bide delako esanguratsua migrazio-prozesurako.

Beraz, Gipuzkoara heltzerakoan aurreikusi gabeko egoera linguistikoa aurkitzen dute, ezustean topo egiten dute berarekin. Baina, egoera hori ez da traba izan, integrazio linguistikoa gaztelaniaz oztoporik gabe egiteko, abiapuntuan aurreikusi zuten bezala. Gaztelania hizkuntza hegemonikoarekin nahikoa izan dute oinarritzko beharrak asetzeko euskararen presentzia eta harekin kontaktua oso txikia izan dutelako, hots, hizkuntza-esperientzian egokitzapen berezirik egin behar izan gabe ez dutela euskararako integrazio soziolinguistikorako beharrik izan.

5.2 INTEGRAZIO LABORALA (1 FASEA)

Biziraupeneko beharrak asetzea ezinbesteko baldintza da etorkinen integrazio laborala¹⁵ gerta dadin, hots, lan-merkatuan integratzeko aukera izan dezaten. Ikerketan parte hartu dutenen artean, gehien-gehienak zaintza- eta merkataritza-arloan aritzen dira lanean Gipuzkoan, oro har EAEn ohikoa den bezala.

- **Gipuzkoako lan-merkatuan ostalaritza eta zaintza-arloan izan dute sarbidea, nahiz eta beste lanbide-erreferentzia batzuk ere ematen dituzten**¹⁶. Jakinekua da gaur egun (oraindik ere), etxeko zaintza-lan horietan aritzen direnak emakumezkoak direla, eta batez ere, adineko pertsonen arretan dutela jarduera nagusia. Gainera, zaintza-lana egiten duten etxe horietan izan ohi dute bizilekua langile-emakume askok (egoiliar modura), batez ere, heltzen diren ondorengo urteetan, sarri, baldintza gogorretan. Horiez gain, kanpoko etxeko langile laguntzaile gisa edota haurren zaintzan ere aritu ohi dira. Bestalde, ostalaritzan dute bigarren lan-jarduera esparru nagusia, esan bezala. Era berean, zenbait kasutan, jatorrian dituzten ezagutza akademikoak xede-lurraldean osatu eta baliatu daitezten zailtasunak izan dituzte.

[Ana] En bares, cuidado de personas mayores...

[Carmen] Mi hermana estuvo trabajando como tres años con una señora, que yo estuve en el centro de día también cuidándolas a ellas

[Elena] Soy investigadora, en nanomedicina.

- **Lan-merkatuan integratzeko aukera izan dute etorkin gehienek;** erraz topatu dute lana, baina, horrek ez ditu saihesten lan-baldintza gogorrek kasu

¹⁵ Fase honetan, integrazio laboralaren azterketarekin batera eskolakoa ere kontuan izatekoa da. Nolanahi ere, ikerketa honetan parte hartu dutenek eskolarekin izan duten harremana ez da gaiak behar duen sakontasunez aztertze nahikoa izan. Horregatik, berariaz soilik landu da lan-esparruko eskolakoa baino.

¹⁶ Beste ezaugarri asko bezala, honakoa ere oso partekatua da EAEko eta Nafarroako gainerako lurraldeetan gertatzen denarekin; 2010. urtetik aurrera bereziki zaintza-arloan, eta 2020tik aurrera merkataritza-esparruan, orokorra da latinoen lan-jarduera bi horietan banatu dela oraintsu arte (Silvestre Cabrera 2023).

gehienetan. Gainera, lan-esparruan ere, arrazakeria islatzen duten neurri bateko esperientziak ere aipatzen dituzte: kontraturik gabe lan egin izan dute, ordu-kopuru handiko jardunaldietan, edo deskantsu-egunik gabeko asteetan.

[Teresa] Sí, merece la verdad que yo le doy gracias a Dios porque ha habido personas que han sufrido mucho. Bueno, todo el mundo sufre y hay diferentes maneras ¿no? Pero en los trabajos yo me he acoplado muy bien.

[Sara] Otra vez otra le, otra chica le dijo; estas latinas que vienen a quitar el trabajo. Y le dije yo; No guapa, yo he venido a trabajar lo que tú no has querido hacer. ¿Tú estarías 24 horas con una abuela? ¿Verdad que no? Pues nosotras hemos venido a hacer ese trabajo que ustedes no han querido ni lo han podido hacer.

[Luisa] No, nada. Ningún contrato. Nada nada nada.

Esan daiteke, beraz, integrazio laborala egiteko aukera izan dutela etorkinek, orohar, nahiz eta, sarri, lan-baldintza zailak izan ohi dituzten, kasu batzuetan baita arrazakeria zantzuak dituztenak ere. María Silvestre ikertzaileak honako laburpen gure iritziz egokia egiten du:

Euskadiko migratzailearen profila honako hau da: emakumea, latinoamerikarra eta adinekoak eta mendekoak zaintzen jarduten du. Emakume migratzaileek beren egoera legeztatzeko eta tituluak homologatzeko arazoak dituzte, zaintza lanak egin ohi dituzte, oso baldintza prekarioetan eta aitorpen gutxirekin, eta horrek ahultasun egoerak sortzen ditu, emakume migratzaileek berek Gobernuaren eta Lanbideren ordezkartzen aurrean behin baino gehiagotan salatu duten bezala. (Silvestre Cabrera 2023, 197)

Integrazio soziolinguistikoa lan-munduan

Zer leku izan du hizkuntzak prozesu horretan, ordea? Zein leku hizkuntzek? Integrazio soziolinguistikoaren ikuspegitik, interesatzen zaigu begiratzea zein hizkuntza-gaitasun (ahozkoak eta idatzizkoak) behar izan dituzten etorkinek lan-munduan integratzeko, eta gizartearen jarraibide soziokulturalak ezagutzen hasteko (Paredes García 2020, 52).

- **Gipuzkoan, lan-merkatuan integratzeko ez dutela euskararen beharrik izan, gaztelania menderatzea nahikoa izan baitute.** Nolanahi ere, zenbait kasutan, euskara baliagarria izan zitekeela ere aitortu dute etorkinek, lagungarri neurri batean.

— **Euskara lan-integrazioan baliagarria izan zaiela diote etorkin batzuek.**

Eta horrekin batera, badira gizarte igogailurako baliagarri ikusten dutenak ere, hots, gizartean hobekuntza ekonomikoak lortzeko tresna modura ikusten dutenak. Hau da, ez soilik integratzeko tresna bezala, baizik eta baita errealitate sozio-ekonomikoan kokapen batetik bestera mugitzeko bultzada gisa ere. Gainera, azpimarratzen dute lan-esparru askotan euskara eskatzen dutela.

[Miguel] [El euskera es importante]. Sí, han hablado que entre si sabes más el idioma este euskera que mejor, ¿no? En, en cuestión de trabajo; lo ven mejor.

[Carmen] [El euskera es importante]. Sí, sí. Yo creo que sí. Sí sí. Para el trabajo también [el euskera es importante]. Muchas veces te ponen “trabajo que hable euskera”, “mayormente que sea euskalduna”.

— **Emakumezko etorkin asko adineko pertsonekin egiten dute lan, etxeetan.** Kasu horietan, asko dira zaindu behar dituzten horien etxeetan euskara entzun dutenak, eta poliki-poliki batzuek hitz batzuk ikasi dituztenak. Etorkinek euskara erabili baino gehiago, ingurugiro horretan ikusten dute euskara erabili egiten dela.

[Lucía] Y después ya, incluso, yo después comencé a trabajar en una casa en un pueblo dónde sólo hablan euskera y la señora me preguntaba todo en euskera. Yo decía, ¡madre mía! Y ahora cómo le, pero el abuelo, el esposo, estaba ahí. Oye ¡ven! No sé qué me dice, ya se ponía a reír, entonces me explicaba él. Él le preguntaba en euskera, le contestaba ella en euskera, luego me decía a mí. Él me traducía. Y de tanto esto durante casi 4 años. Yo entiendo mucho. Pero no lo hablo, pero muchas cosas lo entiendo, pero no lo hablo.

— **Gaztelaniaz hitz egiten jakiteak ekartzen dieten onura, eta euskararen beharrik ez izatea eskertzen dute;** alegia, euskararen presentzia txikia denez, agerian geratu da gaztelaniaz hitz egiten jakiteak ekartzen dieten onura, euskararen aldean:

[Teresa], Cuando uno viene a un país, no conoces a nadie, lo que nos favoreció a mí y a todas otras chicas, el idioma, ¿no? Y que nunca nos han exigido el euskera. Entonces, incluso y se intenté hacer el, cómo se llama para ingresar la Universidad. El acceso y no me exigieron el euskera, entonces.

Beraz, esan daiteke integrazio laboralean hasierako fasean bezala, lan-munduan aritzeko ere, latinoek gaztelaniarako integrazioa erabatekoa izan dutela, euskararekin kontaktu minimoa izan baitute eta, zenbait kasutan euskara

komenigarria denaren ideia duten arren, ez dutela beharrezko izan. Beraz, esan daiteke integrazio laborala gaztelaniarakoa egin dutela.

5.3 INTEGRAZIO SOZIALA (2. FASEA)

Harrera-lurraldera iristerakoan, migratzaileek oinarritzko bizi-baldintzak ase eta lan-integrazioa osatzen dutenean aukera dute integrazio sozialaren prozesua hasteko¹⁷. Bi aldeetan -etorkinen eta harrera-gizartean- presente dauden ezaugarriek baldintzatzen dute sozializazio horren nolakotasuna. Ezaugarri horien artean garrantzizkoak dira, besteak beste, etorkinek jatorriarekiko edota harrera-gizartearekiko dituzten sentimenduak, edota harrera-lurraldearekin elkartzen eta bereizten dituzten ezaugarri linguistikoak, sozialak eta kulturalak. Hau da, etorkinen eta harrera-gizartearen ezaugarri soziolinguistikoak aldagai esanguratsuak ezagutzea garrantzizkoa izango da integrazio soziolinguistikoaren fase hau azaltzeko (Paredes García 2020, 58–59).

5.3.1 Jatorriarekiko eta harrera-gizartearekiko sentimenduak

Egungo mendebaldeko gizarteetan pentsatu izan ohi da migratzaileek jatorri-lurraldeekin dituzten loturek baldintzatzen dutela harrera-gizarteko integrazioa. Alegia, zenbat eta harreman estuagoa izan jatorriarekin, orduan eta zailagoa egingo zaiela xede-lurralderako egokitzapena; eta, alderantziz, zenbat eta azkarrago askatu jatorriarekiko loturetatik, orduan eta azkarrago gertatuko dela xede-lurraldean integrazioa. Beste ikerketa batzuetan ere, zenbait etorkinen lekukotasunek ideia hori azpimarratu izan dute¹⁸. Beraz, esan behar da pentsamendu horrek elikatu ohi duela alde bakarreko integrazioaren pentsamendua eta asimilazioaren ideologia¹⁹. Ikerketa

¹⁷ Integrazio faseak bata bestearen ondoren osatzen direneko ideia oso baliagarria da prozesuaren azterketarako, baina, ez du beti erabat independenteak direnik esan nahi; esate baterako, lan-integrazioa eta integrazio soziala aldi berean edo bertsuan gerta daiteke.

¹⁸ Adibide gisa aipa daiteke Donostian egindako ikerketa batean jasotako lekukotasunen arabera adierazi dutela "jatorriarekiko loturak albait arinen eten behar argia sentitu izan dutela eta pentsamendu horrek elikatu ohi duela alde bakarreko integrazioaren ideia eta asimilazioaren ideologia (Uranga Arakistain, Basurto Arruti, eta Laita Pallares 2023, 129).

¹⁹ Asimilazioaren ideologiak aldarrikatzen du xede-lurraldean integratzeko bertako ezaugarrietara modu homogeneoan erabat moldatzeko jatorriarekiko harremanak eten behar direla (Giménez 2010, 2:21)

honetan, jarrera horiekin batera bestelako iritziak ere jaso dira, ondorengo lerrootan zehazten den modura.

- **Etorkinek jatorriarekiko sentimendu baikorrak erakusten dituzte**, oro har, eta jatorriarekiko identitatea sendo gordetzen dute. Gainera, jaioterrian geratu diren familia-kide eta lagunekin urruneko harremanak mantentzen dituzte, eta horiek elikatzea eta eustea euren lehentasunezko nahia da. Horrela, jatorriarekin gizartean harreman iraunkorrak mantentzen dituztela erakutsi dute gehienek; esan daiteke, beraz, gaur egun migratzaile horiek izaera *transnazionala*²⁰ partekatzen dutela.
- **Jatorriarekin harremana mantentzen duten etorkinek** joan-etorriko bidaiak egiten dituzte aukera dutenean. Eta, aipatzekoa da jatorriarekin harremana mantentzeko modu ohikoena teknologia berriak erabiltzea dela, aldian aldiko bidaiak egiteaz gain; izan ere, teknologia horiek eskuragarri eta merkeak dira, eta, hala, etorkin askori komunikazio oso sarria izateko aukera ematen diete. Bi herrialdeetako komunikazio hori, gainera, bertako egoera zailaren aringarri modura bizi dute.

[Juan] Todos los años, no fui hace dos años por la pandemia, pero voy todos los años. Mi familia está allí, mi hermana, mi abuela, mis primos, mis amigos, toda. Mantengo contacto bueno las costumbres mantengo lo mismo, el mate y esas cosas que, ciertas comidas, y luego la tele, el Teleberri, y todo. Tengo todo y ahora con el WhatsApp, tienes todo.

[Sara] Y ya cuando ya empezaron estos teléfonos dije yo, gloria a Dios, porque con esto ya me ahorro un montón de dinero. Hombre, y los veo y hablamos, no como antes que era solo de llamar y cerrar el telefonito.

[Carmen]. Todos los días por Whatsapp.

- **Etorkinen artean, ordea, badira jatorriarekin sentimendu ezkorrak dituztenak.** Ikerketan parte hartu duten etorkin batzuek adierazi dute jatorriko herrian zuten egoera txarraren ondorioz migratu behar izan zutela, eta harrera-gizartean egindako egokitzapenak ahalbidetzen dietela harremanak izatea, haien

²⁰ Gaur egungo nazioarteko migrazioaren ezaugarri garrantzizkoa da migratzaile gehienek izaera *transnazioanal* bezala izendatu den ezaugarria. Alegia, jatorrian eta heldu-gizartean dituzte harreman ekonomiko eta sozial jarraitu eta iraunkorrak, eta horrek ez du zertan oztopatzen xede-lurraldean izan dezaketen integrazio soziala, prozesuaren hasieran xede-lurraldeetan aurreikusten zuten bezala (Ikus 1.2 atala).

herrialdeetako pertsonekin kontaktua galdu eta gero. Horrela, aukera izan dugu baieztatzeko izaera transnazionala ez dela etorkin guztien ezaugarria.

[Alba] Y que la nueva política está ahorita muy difícil y bueno pues. Yo poco, bueno llegué acá, yo me estoy relacionando más con la gente de aquí, con allá pues muy poco la verdad.

[Lucía] Yo sinceramente, yo de mi país ya poco me acuerdo. Y tampoco aspiro a irme. Incluso la mayoría de la gente que tiene 2, 3 años dice ¿Qué vamos a ir a hacer a Nicaragua? Si Nicaragua estuviera bueno, no estaríamos aquí.

- **Bestalde, aipatu behar da harrera-gizartearekiko etorkin gehienek sentimenduak oso baikorrak direla;** eta sozializazio-prozesua beti erraza izan ez den arren, bertan geratzeko borondatea dutela, euren etorkizuneko bizitza bertan proiektatzen dutela. Seme-alabak dituztenen kasuetan batez ere sentimendu hori sendotzen da harrera-gizartearen hautematen duten segurtasun-bizipenak lasaitasuna ematen dietelako. Euren hitzetan esanda, sozializazio-prozesua beti erraza izan ez den arren, gehienek xede-lurraldean geratzeko borondatea adierazi dute.
- **Sentimendu konplexu bateratzaileak ere** ageri dira etorkinen artean, beraz. Jatorriarekiko sentimendu positiboa eta identitarioa gordetzearekin batera bertakotze identitarioa ere erantsi baitzaie, identitate konplexuak garatuz.

[Carmen]. “pasa que mi corazón ya no es solo azul y blanco. Ahora ya mi corazón está dividido”.

- **Etorkinek jatorri bereko kiderekin sozializatu ohi dira, jatorri bereko etorkinen artean izan ohi dituztela harremanak** soilik. Beraz, integrazio soziala bereziki autoktonoen alboetan egiten dute. Askok adierazten dute horiekin dituzten harremanak soilik lan-esparruan eratutakoak direla, harreman sozialak urriak direla, ia soilik zaintzarekin lotuta. Izan ere, lan-mundutik haragoko harremanak izateko benetako zailtasunak izan dituzte gehienek. Zailtasun hori areagotzen da, kasu askotan lan-baldintzek ez dietelako tarterik uzten aisialdi-tarteak antolatzen.

[Lucía] hay chicos aquí de mi país, y de otros países que a veces nos reunimos.

[María] Por el momento ahora no hago nada de eso porque como trabajo todos los días y trabajo el fin de semana, entonces no me da tiempo y cuando tengo horas libres salgo a dar un paseo y nada más para distraerme. Sí.

- **Etorkin batzuek, ordea, bertakotze-prozesuan eroso sentitu dira** gizartearen adierazpide kulturaletan parte hartzeko aukera izan dutelako.

Kasu batzuetan bertako biztanleen artean izandako harreman sozial eta kultural zenbait medio, euren sentimendu identitarioak ere ukituak izan dira; badira etorkinak xede-gizarteko hiritarrekin burututako ekintzek eta harreman sozialek bertakotzea eragin dietenak.

[Sofia] Y yo les decía, “yo quiero mi vejez acá, yo quiero una vejez como la de acá, donde pueda andar libremente, donde pueda hacer deporte, donde yo me pueda ir a tomar un vino tranquilamente”.

[Juan] Mira yo no he tenido ningún problema, yo ya te digo mis amigos. Me he sentido como si fuese de aquí o que los conozco de toda la vida. Nunca me han hecho un feo, ni me han apartado por ser de fuera ni nada, nada, al contrario, todos ven escucha, aprende. A la pelota empecé a ir por ellos. [...] me he movido, he andado y ya te digo, luego yo también soy muy curioso. Hay una fiesta de algo y bueno me gusta ver, saber de qué se trata o leerlo o y esas cosas.

- **Harrera-gizartearekiko sentimendu ezkorak dituzten etorkinen lekukotasunak ere jaso dira.** Batzuen kasuan, hasierako sozializazioak dakarren egoera zailetik ondorioztatzen den bakardade edo ziurgabetasunetik eratorriak dira. Baina zenbait kasutan sentimendu ezkor horiek arrazakeriarekin lot daitezkeen bizipenen emaitza ere badira.

[María] A veces hay personas que te discriminan por ser inmigrante.

Etorkinen harreman sozialak, kasu gehienetan, jatorri bereko kideen artean izaten dira, eta harrera-gizarteko biztanleekin lan-harremanetatik harago kontaktuak oso urriak izan ohi dira. Gainera, etorkin guztiek ez dute harrera-gizartean egokitzapen edo integrazio sozial egokia egiteko aukerarik izan, besteak beste, euren lan-baldintzek ez dietelako aukerarik eman lanaz haragoko jardueretan parte hartzeko. Beraz, lan-baldintza horiek hobetzen ez diren artean zail egiten zaie harrera-gizarteko integrazio soziala burutzea. Aipagarria da, kultuarterekotasunaren ikuspegiaren arabera eredu horrek (elkar oso gutxi ukitzen duten gizarte-taldeen arteko harreman-eredua) bazterketa sozialeko egoerak garatzeko arriskua sor dezakeela.

Azkenik, badira gure artean, bertako biztanleekin harremanetan ekimen partekatuetan aritzeko aukera izan duten etorkinak, eta horien artean batzuek adierazi dute bertako gizartean integratuta eta eroso sentitzen direla; etorkin horiek

identitatearen inguruko moldaketa zenbait izan dituztela azpimarratu dute, harrera-gizarteko identitatearen parte direla adierazten dutelako. Esan daiteke, beraz, etorkinen integrazio soziala gerta dadin harrera-gizartean etorkinen eta autoktonoen arteko harremanetan sakontzeko aukera ematea gakoa izan daitekeela.

5.3.2 Integrazio soziolinguistikoa

Integrazio sozialaren prozesuan, ordea, zein izan da hizkuntzek izan duten egitekoa? Nolakoa izan da integrazio soziolinguistikoa etorkinen eta bertakoen harreman sozialetan? Paredes soziologoari jarraiki gogoratu behar da “fase honetako integrazio linguistikoaren helburu nagusia hizkuntzaren balio soziala praktikan jartzeko gaitasuna eta trebetasunak biltzea dela, baita egoera konplexuetan ere” (Paredes García 2020, 52). Testuinguru horretan Gipuzkoako egoera linguistikoan latinoek izan duten esperientzia sozial eta linguistikoa begiratuko dugu ondorengo paragrafoetan.

- **Integrazio soziolinguistikoa gaztelaniaz egin dute latinoek Gipuzkoan:** harrera-gizarteko hizkuntza sozialki nagusia hitz egiten dute, eta gizartearekiko hurbilpen kultural eta identitarioa izango dutela aurreikusi dute etorkinek bertara etorrira²¹.
- **Hizkuntza beraren aldaera desberdinek latinoen eta autoktonoen arteko desberdintasunen berri jaso da ikerketa honetan²². Baina desberdintasun horren kontzientzia ez da bazterkeriako praktikekin lotu.** Kasu batzuetan, euren aldaera eta Gipuzkoan hitz egiten denaren artean erakarpen bat dago, hurbilpenerako nahi bat, adibidez, aldaera horretan harreman-ereduak egokiagoak iruditzen zaizkielako. Hala gertatzen da, esate baterako, hizkuntzaren errespetuzko forma lausoagoen inguruan Gipuzkoako hizkeraren ezaugarri hori desiragarria egiten baitzaie, pertsonen arteko gertutasuna adierazten duelakoan.

[Sara] Pero a mí me encanta esta cultura, y de tutear a las personas porque hay más confianza.

²¹ Etorkin latinoentzat badago Latinoamerika eta Estatu Espainiarren artean gutxiengo hurbiltasun kultural zehatz bat, eta hizkuntza kultura horretako adierazpide nagusia da.

²² Ikus 2.3 atalean integrazio soziolinguistikoan hizkuntza baten aldaera desberdinen arteko hierarkizazioak eta ondoriozko arrazakeria linguistikoaren aipamena.

Euskararako integrazio soziolinguistikoari dagokionean ordea, zein izan da etorkinek izan duten aukera euskararekin harremanetan egoteko integrazio sozialean?

- **Gipuzkoara bizitzera etorri direnen bizitza sozialean euskararen presentzia minimoa izan da.** Etorkinek izan dute euskararen berri; bere presentzia soziala oso txikia dela aitortzen dute, baita herri euskaldunetan bizi diren etorkinen iritzian ere, nahiz eta tartean behin entzuten duten, lanean (batez ere etxeetako zaintza-esparruan), komertzio edo tabernetan adibidez. Nolanahi ere, etorkin batzuk oso positiboki baloratu dute euskararen presentzia eta hizkuntza gutxitua izan arren, babestearen alde daude:

[Elena] Que había una lengua distinta, pues me pareció bonito porque siempre me parece que es parte de la cultura y que es algo lo que hay que conservar..

Ondorio modura, esan behar da aurreikusitako gaztelaniarako integrazio linguistikoa burutu dutela arazorik gabe ikerketa honetan parte hartu duten etorkinek; gaztelaniaren aldaera desberdinen erabiltzen dituztela kontziente dira, eta ikerketa honetan ez da, hizkuntzaren arrazoiak tarteko bazterkeriako lekukotasunik jaso. Gainera, apenas izan duten aukerarik harremanak euskaraz egiteko, eurek bizi izan duten harreman sareetatik at geratzen baita euskara, baita presentzia soilaren aldetik ere²³.

5.4 INTEGRAZIO KULTURALA (3. FASEA)

Ikerketan parte hartu duten etorkinek Gipuzkoan aurkitu dituzten ezaugarri edota adierazpen kulturalen inguruan gogoeta egin dute, haien herrialdeetan dituztenekin alderatuz. Aipagarria da, hasteko, bien artean aurkitu dituzten desberdintasun kulturalak azpimarratu nahi izan dituztela, berdintasunak baino gehiago.

- **Desberdintasunak azaleratu arren, ikuspegi eta egiteko modu ezberdin horiek gehienetan positiboki baloratzen dituzte.** Esate baterako, eguneroko

²³ Aipagarria da hizkuntza-ukipeneko egoerak aztertzeke beste ikerketa batzuetan elkar ukitzen ez duten *bi mundutan* harremanetan dauden bezala (Amorrortu et al. 2009, 188), latinoek ere, bi mundutan eraikitzen dituztela harreman eta sare sozial gehien-gehienak.

ohituretako adierazpideetan -horiek bizitza-kultural modura ulertuta-, familia harremanak ulertzeko moduetan, festak egiteko askotariko erak kontuan hartuta, kalean ibiltzeko ohituretan edota elikagaien inguruko antolaketetan.

[María] Aquí, que me llaman la atención de las costumbres. El horario de cena, la comida que comen muy sano. Claro ahí comemos sano, pero solo las personas que tienen dinero, porque allá una persona que come lentejas es porque tiene mucho dinero. Sí. Y aquí es porque no. Y eso, y los horarios nada más. Pero de ahí todo de esto me gusta, porque aquí hace muchas fiestas y todo eso.

- **Etorkin asko euren haurren sozializazioaren bitartez** heldu dira bertakoekin harreman sozialak edo kulturalak izatera, eta adierazpen haietan parte hartzen hasi dira euren seme-alaben eskolak gidaturiko aisialdiko jardueren bitartez.

[Rosa] Nos topamos en el polideportivo, cuando están en multi kirolak, cuando se van para la montaña a jugar, que va de paseo de excursión los domingos, este, cuando hay alguna actividad cultural en la escuela, y mis muchachos casi siempre se integran, las actividades culturales, hasta hace poco me hicieron bailar.

- **Kasu batzuetan, ordea, desberdintasun kulturalak begirada ezkorrez ulertuak izan dira etorkinen bizipenetik.** Desberdintasun bezala aipatu dute esate baterako, ezezagunenganako harreman ez formaletan sumatzen duten urruntasuna edo izaera mesfidatia. Kasu batzuetan, gainera, mesfidantza-adierazpenak arrazakeriaren mugan dauden portaera bezala identifikatu dituzte.

[María] ... cuando vine al principio mi prima me mandó hacer unos recados a la parte vieja. En la parte vieja yo estuve preguntándole a muchas personas, estuve preguntando una dirección porque yo no conocía y nadie me quería decir nada. Me daban como que se quitaban cuando yo les preguntaba, como que tenía el temor de que yo les iba a hacer algo, no sé.

Zein izan da, ordea euskararen presentzia Gipuzkoara heltzerakoan etorkinen bizipen kulturean? Esan gabe doa gaztelaniaz hitz egiteak erraztu dietela hizkuntza horretan adierazten den bizitza kulturara hurbiltzea. Baina, zein da fase honetan euskarak izan duen lekua, betebeharra, eta zein emaitza? Gipuzkoara iristerakoan, gaztelaniaren aldameneari euskararen berri izan dute, eta egoera minorizatuan izan arren, hizkuntza horrekin kontaktua izan dute.

- **Etorkinek euskal kulturarekin izan duten harremana oso azalekoa da.** Harreman horren lekukotasunak badira, baina gehien-gehienek apenas euskararen presentziaren inguruko errealitatea ezagutzen duten. Kasu bakan batzuetan euskal

adierazpide kulturarekin harremana izan dute, besteak beste, euskal musikarekin, zine-munduarekin edo herriko festa tradizional ezberdinekin.

[Rosa] Y la Tamborrada fue nuestro primer evento cultural. Eso nos motivó a investigar, qué era la Tamborrada, por qué se daba la tamborrada, a qué se debía la Tamborrada, a qué año pertenecía.

[Clara] Pues no sé, aquí la verdad es que, sí he visto lo, los bailes, todo lo que suelen hacer, como se visten, y todo eso, cuando se visten de caserito, y eso sí que me gusta mucho verla, bueno, vestirla a Uxue también.

[Sofia] Vamos al cine, fui a ver la película Irati, que es en euskera, por lo menos te haces una idea.

- **Halere, badira euskal kulturara hurbilduz bertakotze sakonagoa bizi izan dutela adierazten dutenak ere,** edo aukera izanez gero egingo luketela esan dutenak:

[Lucía] Pero si es una cultura no, estás aquí, no puedo venir a decirte, oye eso no me parece, ¡quítalo! Creo yo ¿no? ¡No puedes hacer eso! Tú vas a mi país, en mi país hablan un dialecto en la costa atlántica si no aceptas te tienes que ir. Pero si tú quieres integrarte, tienes que esforzarte. Yo hablo un poco, sí palabras sueltas. Yo entiendo el euskera pero no lo hablo. No lo leo, y mucho menos lo escribo. Pero si yo me dieran la oportunidad de hacerlo, yo lo hago.

- **Etorkinen eta bertakoen artean integrazio kulturala gertatu dela adierazteko ez da harreman nahikorik gertatu.** Ikuspegi kulturalaren aldetik desberdintasunak azpimarratzen dituzte etorkinek, baina gehienetan alderdi positibotik begiratzen dituzte desberdintasun horiek. Gainera, kasu batzuetan diskriminazio edo arrazismo zantzuak topatzen dituztela aipatzen dute. Euskal kulturaren adierazpideei dagokienean, harreman oso txikia izan dute, eta aukera izan dutenean, euskal kulturako izaerako zenbait alderdi interesgarriak egiten zaizkie.

Ondorio modura esan daiteke latinoen eta autoktonoen artean harreman kulturala oso mugatua izan dela. Kultura bizitza-ohituren adierazpen bezala ulertuta desberdintasunak positiboki baloratzen dira, baina harremanak izateko modu desberdinekin mesfidantzak ere sortzen direla aipatu behar da. Nolanahi ere, esan behar da euskal kulturaren adierazpenekin harremana edo kontaktua duten etorkinak oso gutxi

*direla, eskolaren bitartez euren aurren bidez heltzen direla, eta kasu horietan integrazio sakonagoaren adierazpenak jasotzen direla*²⁴.

5.5 HIZKUNTZA-JARRERAK

Esan dugu integrazio soziolinguistikoa ulertzeko etorkinek harrera-gizarteko hizkuntzekiko dituzten jarrerak eta, era berean, egoiliarrek etorkinen hizkuntzekiko dituztenak aztertzea garrantzizkoa dela (Moreno Fernández 2009, 145).

5.5.1 Iritziak (Alderdi kognitiboa)

Etorkinek euskarari buruz dituzten iritziak aztertuko da atal honetan. Esate baterako, euren iritziz zein diren euskara hitz egiten jakitearen onurak (ikus 1. taula 2.3 atalean).

Euskararen balio instrumentalari dagokionean, hots, gizartean aurrerapen sozial eta ekonomikoak izateko baliagarri bezala hizkuntzek duten balioen inguruan iritziak jaso dira.

- **Etorkin askok aitortzen diote balio instrumentala euskarari, gizartean aurrera edo gorantz egiteko;** zenbait kasutan, lanpostu hobeak lortzeko lagungarri dela iritzi diote, batez ere, zaintza-lanetan erakunde publikoetan eta etxe euskaldunetan.
- **Lan-munduan beharrezko ez izatea oso garrantzizkotzat dute,** nolanahi ere; izan ere, ezingo lukete epe edo etorkizun hurbilean lanpostuetara heldu euskaraz

²⁴ Ezaugarri hori, beste ikerketa batzuek ere azpimarratu izan dute. Esate baterako, Shershneva ikertzaileak hala adierazten du 2021ean egindako ikerketan: Lehenik eta behin, ikusten da, oraindik ere, atzerrian jaiotako populazioaren euskararen ezagutza eta erabilera urria dela, eta jatorrien arabera oso fragmentatua dela. Gainera, badirudi etorkin batzuk, batez ere Latinoamerikarrak ez direnak, gehiago hurbildu daitezkeela, nahiz eta jatorri horretako zenbait herrialdeetako pertsonak ezagutza altuena eman (Shershneva 2021, 56). Halere, euskal kulturarekin harremana izan duten etorkinek bertakotze zuzenagoko adierazpenak egiten dituzte. Eta izaera horrek bat egiten du beste ikerketa batzuk erakutsitakoarekin ere: Integrazio subjektiboak badu ere zerikusia euskararen erabilerarekin, non gehiago integratuta sentitzen diren pertsonak gehiago erabiltzen duten euskara komunikazio hizkuntza gisa (Shershneva 2021, 57).

hitz egitea bete beharreko ezinbesteko baldintza izango balitz; are gehiago, euskara, kasu horretan lagungarri baino gehiago oztopo modura ere ikusten dute batzuek:

[Lucía] Hoy en día es un obstáculo, para mucha gente que quiere trabajar.

[Sara] A ver, es muy bueno, pero al mismo tiempo un poquito complicado para los latinos que estamos aquí y que no lo saben todavía. Y que por ese problema no vayan a poder trabajar, porque no saben el euskera.

5.5.2 Euskararekiko sentimenduak (Alderdi afektiboa)

Euskarak eragiten dituen sentimenduak aztertzeke abiapuntuan egon daiteke, euskarak eskaini dezakeen **balio integratzailea begiratzea**. Etorkinen artean jaso dira euskal gizartean integratzeari buruzko iritziak, euskararekin loturiko kultura-esparruan, izan ere, aipatu behar da etorkinek egiten dutela euskararen bitartez euskal gizartean integratzeari buruzko aipuak, nolabait euskarari *balio komunitario* aitortzen diote.

- **Etorkin zenbaitzuk iritzi diote euskarak integrazio kulturean laguntzen duela**, nahiz eta prozesu hori zailtasunez beterikoa den; bertako hizkuntza ikasiz, gainera, bertako euskaldunekin harreman sakonagoak dituztela pentsatzen dute, eta horrek sentimendu positiboak eragiten dizkiete; euskarari hurbiltzeak integratzeko erraztasunak ematen dizkietela diote zenbait etorkinek.

[Sofía] Para mí es una satisfacción, porque digo me estoy integrando poco a poco.

[Pedro] Desde luego que sí. Desde luego. Muchísimo. Osea lo noto un montón. Nada, o sea, cuando incluso cuando voy a entrenar, hablan una cosa, ¿no? de origen extranjero, habla en euskera, joe la gente le arroja, no sé qué y cambia totalmente el trato a la persona es más cálido y te tratan como uno uno más.

[Elena] Yo estoy estudiando euskera porque quiero, no porque lo vaya a usar en mi vida porque no lo necesito, pero me parece precioso y creo que es parte de la cultura.

- **Gehienek, euskarari ospe ona ematen diote, eta euskal kulturaren irudi positiboa dute**. Zenbaitek euskaraz hitz egitearen garrantzia azpimarratu nahi izan dute, euskal kultura erakargarria dela, eta, ahal izanez gero, zenbait kultura-ekimenetan ikusle modura gustura parte hartzen dutela. Beste batzuek azpimarratzen dute kultura bakoitza eta guztiak errespetatu behar direla, eta, euskararen kasuan indarberritze-prozesuarekin enpatizatzen dutela.

[Clara] Pero la verdad es que muy, para mí me parece que el euskera es muy importante.

[Elena] Sí sí, me encanta además, o sea cuando puedo voy a ver las actuaciones. Pero eso, igual que aquí hay muchas fiestas del pueblo o de barrios. No sé si porque vivo en un sitio muy grande, no lo sé. ... Aquí hay más folklore.

- **Euskarara hurbildu diren etorkinek haurren bitartez egin dute.** Etorkinen artean gehienek euren haurrengandik jaso dute euskara eta euskal kulturarenganako interesa; alegia, guraso etorkin askorentzat haurrak izan dira eskolaren bitartez etxera euskara eraman dutenak, beste modu batera esanda, haurrak dira etxea euskarara hurbildu duten agenteak eta sentimendu baikorrak sortu dizkietenak. Gainera, sentimendu positibo horiek euskara ikaste-prozesura eraman dute etorkin asko.

[Juan] [Mi hija] todo estudia en euskera y bueno yo salseo bastante con ella porque le digo, explícame, decirme esto o aunque sea el teleberri aunque sea en euskera, intento aprenderlo.

[Elena] Y luego cuando quedé embarazada, ya más que me gusta aprender el idioma es que tengo que entender a mi hijo. Claro, el va a hablar euskera.

- **Euskararen ospe txarra duten etorkinen lekukotasunak ere jaso ditugu, ordea.** Kasu horietan, euren integrazio sozialaren fase desberdinetan oztopo edo gainditu beharreko muga gisa hartzen dute: gaztelaniaz hitz egiten dutenez, eta bertako egoiliarrek hizkuntza hori hitz egiten dutenez, ez dute euskararen erabilera beharrezkoa ikusten. Esan daiteke, euskara ez dela sozializaziorako edo gizartean integratzeko beharrezko hizkuntza etorkinentzat ez du balio instrumental edo integratzaile esanguratsurik. Gizarte-mailan euskararekin izan duten kontaktua txikia da (euskararen erabilera gehiago lotzen dute eskolarekin kalearekin baino), eta beraz, ez dute euskara beharrezko ikusten.

5.5.3 Euskararen hizkuntza-plangintzaren eta euskara ikastearen prozesuaz

Euskararen biziberritze-prozesuaren inguruko iritzi orokorrak ere jaso dira etorkinen artean;

- **Azpimarratu behar da askoren iritziz egokia dela euskal kultura eta euskara** defenditzeko eta mantentzeko ahalegina egitea.

[María] Está muy bien. Lo hacen bien y eso tiene que ser así. Siempre seguir con lo mismo, no quitar nada y seguir así.

[Clara] Yo creo que sí, yo creo que sí, merece la pena, la verdad, porque al final este yo creo que debemos aprender cualquier idioma, sea el país donde estemos, estemos en Estados Unidos estemos o sea es importante siempre aprenderlo

- **Etorkin batzuei, ordea, kezka sortzen die, euren iritziz ulertzen ez duten hizkuntza erabiltzea bultzatu nahi delako; eta hori inposizio modura** interpretatzen dute; haientzat migratu ondoren xede-gizarteko hizkuntza gaztelaniaz gain beste bat izatea zaila egiten zaie.

[Rosa] Sí, yo hay momentos en que ... todo está en euskera... todo está en euskera...todo está en euskera... Entonces, da miedo.

- **Euskara ikasteko interes eta motibaziorik adierazten ez dutenak** ere badira etorkinen artean, gaztelaniarekin nahikoa baita euren iritziz.

[Sara] Lo único que a mí me llegaban cartas a los trabajos al buzón, que fuera a aprender el euskera que si quería; invitaciones. Yo decía, le decía yo a las abuelas, mira que me..., ¿y vas a, quieres ir? Mientras me ves en estar, en este país, si se puede hablar todavía el, el castellano, yo no quiero aprender, porque ya con mis años; no he sido muy buena para estudiar, la verdad.

- **Etorkinen iritziz euskara ikasteko zailtasun handiak daude.** Horien artean garrantzizkoenak bi dira: alde batetik, euren lan-jarduerak zaildu egiten diete behar den denbora eskaintzea, eta, bestetik, dirulaguntzak egon arren, ikaste-prozesua aurrez ordaindu behar izatea. Horrez gain, zailtasunen artean aipatzen den hirugarren bat ere bada alegia, euskara ikastea zaila delako esperientziaren ideia orokorra da, eta frustrazio pertsonalean islatzen dena gainera.

[Juan] Yo creo que el euskera es tan difícil ¿no? Es difícil de conjugar, o de no sé, cómo quieras llamarlo, ¿no? de entender. O de montar una frase, una oración. ^[SEP]Entonces yo veo mucha gente que se desanima rápido. Porque conozco muchísimos que empiezan y no lo terminan. No, porque tal no. Debería ser más, no sé si suena mal, no sé si una prioridad, no, pero...

[Elena] Sí, sí sí. Y no tienes que pagar todo de una que, o sea no es lo mismo pagar 500 euros a pagar 200.

6 ONDORIOAK

Etorkin *latinoek* Gipuzkoan egin duten integrazio soziolinguistikoa ikertu da lan honetan, alegia, bertakotze soziala osatzen duten fase guztietan egoera linguistikoari egokitzeke egin duten prozesua.

Esan dugu badirela migrazio-prozesua hasi aurreko ezaugarriek xede-gizartean egiten den integrazioan eragina izan dezaketenak; esaterako, migrazioa abiatzeko arrazoiak, migratzeko moduak, xede-lurraldearekiko dituzten aurreikuspenak, eta, hizkuntza-espektatibak. Horiek guztiek xede-lurraldean integrazio-prozesuan murgiltzeko aldartea molda dezakete, hain zuzen, aurreikuspen horiek egoera errealekin kontrastean jartzen direlako. Horiez gain, etorkinek xede-lurraldeetan egiten duten integrazio soziolinguistikoaren faseak eta bertan eragiten duten aldagai nagusiak identifikatu dira (Moreno Fernández 2009), (Paredes García 2020) (ikus 1. taula).

Integrazio soziolinguistikoari dagokionean, ikerketak erakutsitako ondorio nagusiak honako hauek dira:

- **Abiatu aurretik etorkinek bi motatako arrazoiak izan dituzte migrazioa hasteko: jatorriko egoeratik aldentzea, eta, prozesua aurrez abian jarri dutenei jarraitzea.** Esan daiteke horiek nazioarteko fenomeno orokor modura gertatzen ari denaren ispilu direla; gainera, kasu honetan, ez dira abiatu, halabeharrez, pobrezia-egoeretatik ihes egiteko, baizik eta bizitzako aukera hobeak bilatzeko, gaur egungo joerari jarraiki (Nyberg Sørensen, Van Hear, eta Engberg-Pedersen 2005). Gainera, sarri, prozesu horiek abian jartzeko erabakiak modu indibidualean baino, familian hartu dituzte, familia horiek migrazioko *agentziak* bihurtu baitira (Castles 2014). Aldi berean, ez da ahaztu behar gehienek lehendik izan dutela lan-merkatuan integratzeko aukera izango dutelako informazioa, alegia, Aierdi soziologoak esan bezala, xede-lurraldean identifikatutako behar batzuei erantzunez etorri direla (Aierdi Urraza 2022).
- **Etorkinentzat gaztelania aldagai erabakigarria izan da migrazioa hasi aurretik:** euren hautemateetan euren herrialdeetan eta xede-lurraldean hizkuntza eta kultura bera partekatzen dute, ñabardurekin bada ere,

(Gutiérrez 2013), eta aurreikusten dute, horrela, ezaugarri horrek erraztuko duela xede-lurraldeko integrazio-prozesua; beraz, egokitzapen sozial, kultural eta hizkuntzarekiko espektatiba positibo zehatzak dituzte²⁵.

- **Behin xede-lurraldean kokatuta, biziraupeneko integrazioaren fasean, euren arteko sareak erabiliz egokitu dira latinoak, oso ohikoa den bezala** (Castles 2014); sarri, jatorrizko lurraldeekin gordetzen dituzten maila ekonomiko eta sozialeko harreman iraunkorrak, hots, euren izaera *transnazionala* konfiguratzeko dute (Portes 2005). Nolanahi ere, integrazio-prozesuan zailtasun administratiboak eta egoera zaurgarriak -eta, zenbaitetan, arrazakeriako esperientziak- ohikoak izan dira eta prozesua asko zaildu zaie.

- **Hizkuntzei dagokienean, etorkinek lehen faseko integrazio linguistikoa gaztelaniaz egin dute;** latinoek ez dute euskarazko integrazio soziolinguistikorako beharrik izan, izan ere, gaztelania hizkuntza hegemonikoa erabiliz, eta euskararen presentzia oso txikia izanik, oinarrizko beharrak asetzeko ez dute egokitzapen linguistiko berezirik egin behar izan.

Gertaera horrek, beste errealitate bat ere erakusten du, izan ere, etorkinek Gipuzkoan bizi diren beste senitarteko edo lagun batzuekin lehenik harremana izan arren, horiek ez diete euskararen berri eman, hain zuzen, migrazio-prozesurako informazio hori ez bide delako eurentzat esanguratsua.

- **Integrazio laboralari dagokionean, etorkin latinoek lan-merkaturako sarbidea azkarra izan dute orohar,** nahiz eta, zenbaitetan, lan-baldintza zailak izan ohi dituzten, kasu batzuetan, baita arrazakeria zantzuak dituztenak ere. Eta, hasierako fasean bezala, lan-munduan aritzeko ere, latinoek gaztelaniazko integrazioa erabatekoa izan dute. Euskararekin, aldiz, kontaktu minimoa izan dute eta, ez dute *beharrezko* izan, zenbait kasutan euskara *komenigarria* denaren ideia izan duten arren, beste ikerketa batzuk erakutsi duten bezala (Uranga eta Aierdi 2021). Aurreko fasean egin moduan, honetan

²⁵ Kontuan izan, ikerketa honetan ez dutela parte hartu gaztelaniaz gain jatorrizko beste hizkuntzarik hitz egiten duten latinoak; aldagai horrek beste eragin batzuk sortzen ditu integrazio-prozesuan, baina ikerketa honetatik kanpo geratu da horren azterketa.

ere, integrazio laborala gaztelaniaz egin dute, euskararekiko alboko kontaktu minimoa izan duten arren.

- **Integrazio sozialari dagokionean aipatzekoa da etorkinen harreman sozial gehienak jatorri bereko migratzaileen artekoak soilik izan ohi direla.** Etorkinen eta harrera-gizartearen artean integrazio soziala oso mugatua da, lan-harremanetatik harago xede-lurraldeko biztanleekin dituzten kontaktuak oso urriak direlako. Elkar ukitzen ez duten gizarte-talde bezala bizi dira, eta horrek *bazterketa sozialeko* egoerak gertatzeko arriskua sor dezake (Giménez 2010). Isolamendu horren arrazoiak bilatu behar dira, etorkinen aldetik, eurek dituzten lan-baldintzetan, baldintza horiek ez dietelako aukerarik ematen lanaz haragoko jardueretan parte hartzeko; eta, bertako biztanleen aldetik, behar adinako espazio partekatutak ez direlako sortzen. Beraz, ondorioztatu daiteke lan-baldintza horiek hobetzen ez diren artean, eta espazio komunak ugaritzen ez diren artean zail izango dela harrera-gizarteko egokitzapen edo integrazio sozial partekatua burutzea.

- **Etorkin latinoek integrazio linguistiko-soziala gaztelaniaz burutu dute ia arazorik gabe,** integrazio sozialean dagokionean. Nolanahi ere, gaztelaniaren aldaera desberdina hitz egiten dute, eta horrek aurreikusi gabeko egoeratan jartzen ditu latinoak. Ikerketa honetan parte hartu dutenak kontziente dira Gipuzkoan hitz egiten den gaztelaniaren aldaera eta euren desberdina dela; nolanahi ere azpimarragarria da ikerketa honetan ez dela desberdinkerriko lekukotasunik bildu.

Bestalde, etorkinek badakite gaztelania eta euskara hizkuntza ofizialak diren arren, bien arteko egoera erabat desorekatua dela: horrela izanda, euren integrazio soziolinguistikorako sarbidea gaztelaniaz izan da erabat.

- **Integrazio kulturalen murgiltzeko gaztelaniazko kultura emanalditan egiteko aukera izan dute etorkinek.** Aipagarria da etorkinen eta bertakoen artean ez dagoela harreman nahikorik elkar elikatzen duten integrazio kulturala gertatu dadin. Egia da, bertakotze kulturalaren aldetik desberdintasunak azpimarratzen dituztela, baina, gehienetan alderdi positibotik begiratzen dituzte desberdintasun horiek. Halere, kasu batzuetan diskriminazio edo arrazismo zantzuak topatzen dituztela ere aipatzen dute batzuek, baina ez da pentsamendu orokortua izan.

- **Euskal kulturaren adierazpideekiko adierazi dute zenbait alderdi interesgarriak egiten zaizkiela**, nahiz eta euskal kulturaren ekoizpenarekin kontaktu oso txikia izan. Eta azpimarragarria da, gainera, kontaktu hori, izatekotan, haurren bitartez gertatzen dela errazago. Era berean, aipatu behar da bertakoekin ekimen partekatuetan aritzeko aukera izan duten etorkinek adierazten dutela bertako gizartean integratuta eta eroso sentitzen direla. Horien artean identitatearen inguruko moldaketa zenbait eta nabaritu dira, harrera-gizarteko identitatearen parte direla modu batean adierazten dutelako.
- **Euskararen balio instrumentalari dagokionean etorkin askoren baitan badago euskarak balio duela gizartean aurrera edo gorantz egiteko**; zenbait kasutan lagungarri dela iritzi diote lanpostu hobeak lortu edo zenbait esparrutan leku izateko. Baina, lan-munduan beharrezko ez izatea oso garrantzizkotzat dute, izan ere, ezingo lukete epe edo etorkizun hurbilean lanpostuetara heldu. Hizkuntza eskakizunak baleude euskara lagungarri baino gehiago oztupoa litzateke.
- **Euskara komunitatean integratzeko lagungarria dela iritzi diote baina ez dute beharrezko ikusten**. Euskarak ospe ona du, eta euskal kulturarekin batera adierazpide interesgarria izan daiteke, baina erabat hautazkoa. Sentimendu ezkorrak dituztenak ere badira ordea, batez ere, hautazko elementu horren beharrik ezean, lan eta betebeharrak gehigarri bat modura ikusten baitute. Alegia, ez diote onurarik ikusten ahalegin hori egiteari. Eta, noiz edo noiz horren presentziak ahalegin berezia eskatzen dietenean bazterkeriako sentimenduak eragiten dizkie.
- **Etorkinek ondo ikusten dute euskararen aldeko hizkuntza-politika esplizitua egitea, betiere, euren egokitzapen-prozesuan ahalegin gehigarriak eragingo ez dieten bitartean**. Kontaktua eskolaren bitartez, edo haurrak bitartekari diren heinean euskarara hurbiltzeko motibazioa erakusten dute. Nolanahi ere, euskara ikasteko prozesua oso ondo zaindu behar dela argi dute: metodologia berritzaileak eta erabateko doakotasuna etorkinek euskarara hurbiltzeko ezinbestekoak dira.

Kontuan izan behar da, beraz, aztertzen ari garen kasuan aldagai horiek elkar ukitzen duten bi hizkuntzen testuinguruan eragiten dutela, alegia, harrera-lurraldean egoera diglosikoan dauden bi hizkuntzetako egoera soziolinguistikoan. Horregatik, bereziki interesatu zaigu ezagutzea elebitasun sozialeko egoera zehatz horretan, prozesuan eragiten duten aipaturiko ezaugarri horiek -eta euren pisuak eta nolakotasunak- bi hizkuntzetan parez pare jartzea, hizkuntza batean edo bestean gertatzen den integrazio linguistikoa arrakastatsua izateko aukerak zeintzuk diren (aurre)ikusteko.

2. irudia. Latinoen integrazio soziolinguistikoan eragiten duten aldagaiak²⁶



Iturria: Egilea

²⁶ Irudi honetan jarritako aldagaiaz gain beste batzuk ere parte hartzen dute prozesuan, baina ikerketa honetan azaldu diren nagusiak biltzeko ahalegina egin da eredu honetan. Ziur gaude ñabardura osagarriak egitea interesgarria izan daitekeela.

- **Etorkin latinoentzat integrazio soziolinguistikoa gaztelaniaz izan dadin *aldagai laguntzaileen pisua*** erabat nagusia da: harrera-gizarteko hizkuntza hegemonikoa - gaztelania- hitz egiten dute, hizkuntza horren presentzia soziala erabatekoa eta ospe handikoa da, eta kultura eta, komunitate-ikuspegitik, bertako gaztelaniaren komunitatearekiko identifikazio-maila handia dute. Horrela bada, alde horretatik esan daiteke migrazioa hasi aurretik zituzten aurreikuspenak betetzen direla. Zailtasunen aldetik (*aldagai oztopatzaileak*) aipatu behar da aldaeren arteko hierarkizazioa, latinoen gaztelaniaren aldaera harrera-gizartean gutxietsi izateko arriskua, hain zuzen, hizkuntzatik “harago” pertsonarengana joan daitekeen diskriminazioa eraginez. Arrazakeria linguistiko horrek (Rosa eta Flores 2017) oztopa dezake integrazio soziala eta linguistikoa. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da ikerketa honetan ez dela eragin negatibo horren berririk jaso.
- **Integrazio soziolinguistikoa euskaraz izateko aldagaiei dagokionean**, aztertu ditugun aldagai laguntzaileek eta oztopatzaileek ispilu-irudia sortzen dute gaztelaniaz egiten den integrazio soziolinguistikoarekiko. Alegia, integrazio linguistikoa euskararen bitartez izan dadin *aldagai oztopatzaileak* erabat gailentzen zaizkie *laguntzaileei*: latinoek ez dakite, printzipioz, euskaraz hitz egiten, eta, beraz, hizkuntza hori ikasteak ahalegin gehigarria eskatzen diete²⁷; euskararen presentzia soziala txikia da, eta, oro har, ez dute harremanik hizkuntza horrekin. Gainera, euskarari balio instrumental txikia du, eta, batez ere, latinoek ez diote euskaraz hitz egiteari onurarik ikusten orohar. Aldiz, euskaraz hitz egiten ikastea *aldagai laguntzaile* modura identifikatu dute euskaldunen komunitatean bertakotzeko. Beraz, kasu horietan, euskara hizkuntza komunitario modura hautematen dute; euskal komunitatean integratzeko baliagarria. Gainera, euskararen biziberritze-prozesuaren ondorioz aitortzen zaion babes instituzionalak eta sozialak ere eragiten dio euskararen aldeko sozializazioari (eskolaren inguruan esate baterako). Esan daiteke, amaitzeko, etorkin latinoak aurreikusi ez duten egoera soziolinguistiko batean kokatzen direla euskal hiztun-komunitatean; euskal gizartean integratzeko

²⁷ Ahalegin hori neurtzeko kontuan izan behar dira hizkuntzen arteko distantziak eragindako ikasteko zailtasunak alde batetik, eta, ikaste-prozesuko gainerako aldagaiak: baliabide ekonomikoak eta denbora-beharrekoak, besteak beste.

gaztelaniarekin nahikoa dute, eta, aldiz, euskal hiztun-komunitatera hurbiltzea hautazkoa da.

Aurreko irudiak erakusten duenez Latinoen integrazio soziolinguistikoa bi hizkuntza desberdin dituen ekosistema linguistiko batean gertatzen da (hizkuntza hegemonikoa eta hizkuntza gutxitua). Helburu sozial desiragarria bada, etorkinek euren integrazioa soziolinguistikoa euskaraz ere izan dadin, edo gutxienez, horren aldeko jarrerak izan ditzaten ondoren zehazten diren aukerak aztertu beharko lirateke.

- **Gaztelaniaz egiten den integrazio soziolinguistikoari dagokionean, aurreikusi daiteke** bertan eragiten duten aldagaien pisua ez dela aldatuko epe laburrean. Beraz, integrazio hori modu positiboan, eta, orohar, oztoporik gabe egingo dute latinoek aurrerantzean ere. Kontuan izan beharko da, halere, egokitzapen linguistikoa baldintzatu dezakeen hizkuntza-aldaera hierarkizatuaren gaia, jakinik gainera, hierarkizazio horrek arrazakeria linguistikoaren ideologiak garatzen dituela, eta, ondorioz, gizarteratze-prozesuak oztopatzen.
- **Euskaraz egiten den integrazio soziolinguistikoan eragiten duten aldagaiei dagokienean, komenigarria litzateke:**
 - **Aldagai laguntzaileak indartzea:** besteak beste, hizkuntza komunitarioaren izaera sendoagoa izan dadin ekimenak sortzea, eta euskararen ospea berariaz lantzeko ekimenak lantzea
 - **Aldagai oztopatzaileei aurre egitea:** esate baterako, euskararen presentzia soziala handitzea, euskararen balio instrumentala sendotzea, euskara ikasteko erraztasunak ematea, eta euskara ikasteko onura esplizituak benetakoak direla demostratzea.

AZKEN HITZA

Latinoen integrazio soziolinguistikoa aztertu dugu ikerketa honetan, zehaztuta *integrazio* kontzeptua "immigratutako herritarrak eta bertakoak *elkarri egokitze*ko ahalegin gisa ulertzen" dugula, hain zuzen, Giménezek planteatzen duen

interkulturalitatearen (edo kulturartekotasunaren) baitako azterketa- eta kudeaketa-marko orokorraren baitan (Giménez 2010, 2:20).

Kulturartekotasunaren paradigma egokia dirudi etorkinen eta egoiliarren arteko gizartea eraikitzen joateko aukera egon dadin. Gizarte egoiliarra aldatzen ari da, eta aldatuko da. Akaso, jatorritik bertatik immigrazioaren kontzeptualizazioa aldatu beharko da, Castlesek dion bezala “ezinbestekoa izango da migrazioa berriro kontzeptualizatzea, ez kontrol zorrotzaren pean konpondu beharreko arazo gisa, baizik eta aldaketaren eta garapen globalaren osagarri normal gisa” (Castles 2014, 252). Gainera, immigrazioak harrera-gizarteko aniztasunaren egokitzapena eskatuko du eta horretarako, kudeaketa-eredu berriak sortu. Eginkizun horretan laguntzeko aipagarriak izan daitezke Zapata-Barredoren hitzak:

Aniztasun-testuinguru batean gertatzen diren elkarreraginen aniztasuna kudeatu behar da, kohesioaren helburu sozialarekin, baina baita testuinguru komun partekatua eta kultura publiko komuna sortzen laguntzeko helburu politikoarekin ere. Ezinezkoa da moldatze-politika aplikatu ondoren alderdietako bat ez aldatzea (Zapata-Barrero 2008, 101).

Erronka da, beraz, etorkinen integrazio sozial eta linguistikoan -aniztasun horren baitan-, euskararen bitartez ere izango diren integrazio soziolinguistiko berriak irudikatzeko moduak aurkitzea.

Eginkizun horretan, ikerketa honetan identifikatutako aldagai laguntzaileak sendotzea eta oztopatzaileak higatzeak lagun dezake egokitzapen linguistiko berri bat sortzen. Ziur asko, Zapata Solano ikertzaileak dion bezala, azterketa eta kudeaketa marko berria eraiki beharko da, hain zuzen hizkuntza gutxituak barne hartzen dituen integrazio soziolinguistikoko prozesuak azaltzeko (Zapata Solano 2024). Izan dadila ikerketa hau bide horretan laguntzaile.

ERANSKINA. ELKARRIZKETA-GIDOIA

Guión para las entrevistas

Datos biográficos y recorrido migratorio

Inicio proceso de inmigración

- Origen (lugar de procedencia): Estado de procedencia y, si es posible, región y ciudad más próxima.
- Año de llegada a Gipuzkoa, edad con la que llegaste (aproximadamente) y, si es posible, recorrido migratorio (lugares de paso o estancias anteriores).
- Si has obtenido la nacionalidad española. En caso de que sea así, tiempo que has necesitado para ello.
- Motivo por el que iniciaste el proceso de inmigración: motivos laborales, mejorar la situación económica, reagrupamiento familiar, otros motivos familiares, mejora de las perspectivas de futuro en general...
- Si tienes familia en Gipuzkoa (o en la localidad donde vives): pareja, hijos-hijas, padres-madres, otros. Si la familia llegó al mismo tiempo o, por el contrario, se han incorporado al proceso migratorio después. En el caso de la pareja, os conocisteis aquí o el lugar de origen. En el caso de los hijos/as si han nacido aquí o en el país de origen.

Biografía lingüística personal

- ¿Hablas otra lengua además del castellano? Entre las personas inmigrantes que conoces, ¿hay alguien que hable otra lengua además del castellano?
- En caso de que hables otra lengua, háganos de ella: quién la conoce en la familia, en el lugar de origen, aquí, si se utiliza, en qué ámbitos, situaciones, etc.
- Hablas otras lenguas como inglés, francés, ¿dónde las aprendiste?
- INtegración (0. maila, biziraupeneko sozializazioa)
- ¿Cómo fue la llegada? Redes familiares, redes sociales de origen, redes sociales de llegada ¿Conoces otros procesos migratorios? En lo que conoce ¿podría contarnos cómo ha sido el proceso de migración de la población de su origen?
- ¿Cuáles son las relaciones con el país de origen?: frecuencia de las comunicaciones o viajes, etc.
- ¿Cómo ha sido el proceso de acceso a la vivienda aquí? ¿Cómo es la relación con el ayuntamiento? (ayudas sociales??)
- En esos momentos iniciales ¿tuviste conocimiento de que aquí se hablaba euskera? ¿Oíste hablar en euskera? ¿Lo viste escrito?...

Integración LABORAL / ESCOLAR (1.maila, integrazio laborala/eskola)

- ¿Cómo es (ha sido) el acceso al mercado laboral? ¿Qué facilidades/dificultades has tenido para acceder al puesto de trabajo?
- ¿Quién te proporcionó la información necesaria para acceder al puesto de trabajo? ¿Has tenido acceso a contrato laboral regular?
- ¿Qué opinas de las condiciones laborales que tienes (o has tenido)?
- ¿Tienes relación con otros/otras trabajadoras del sector? ¿Cuál ha sido su experiencia?
- En el caso de los hijos/hijas:
- En su caso, si tienes hijos/hijas ¿cómo ha sido el acceso a la escuela? ¿Has tenido facilidades/dificultades para el acceso a la escuela? ¿Quién te ha informado sobre el acceso a la escuela? ¿Cómo es la relación con los responsables, profesores, dirección? ¿Tiene relación con otros padres o madres?
- En caso de que lleves en la escuela un tiempo ¿cómo ha sido el proceso de escolarización?

Castellano

- ¿Hablas castellano (¿español?) como lengua materna (primera lengua). ¿Crees que eso ha facilitado que llegara a este país, pueblo?
- En tu opinión, ¿el castellano que se habla (el que se habla en tu país) es igual que el que se habla aquí? O, ¿se diferencia mucho?
- Si existen diferencias, ¿hasta qué punto son importantes? ¿Has sentido alguna vez algún tipo de rechazo por tu castellano? Comentarios por el acento o el uso de expresiones que no sean habituales aquí...
- ¿Crees que todas las variedades de países de origen son percibidas igual? (Colombia, Nicaragua, Argentina, Venezuela, Ecuador..)
- ¿Crees que sería necesario/conveniente adecuarse a la manera de hablar de aquí? ¿Sería ventajoso? O, por el contrario, ¿es importante mantener tu variedad de origen? Por ejemplo, en tus relaciones con las personas de origen, ¿habéis hablado alguna vez de ello?

Euskera

- Antes de llegar a este pueblo, ¿sabías que aquí hay dos lenguas oficiales? ¿Cuándo tuviste la primera relación con el euskera?
- ¿Has oído hablar euskera? ¿Quién crees que lo hablan más? (personas mayores, niños, padres y madres..)
- ¿Qué valor crees que tiene el euskera? ¿Crees que vale igual para las personas mayores, que para los niños/as?
- En la relación con la administración, el ayuntamiento, servicios públicos, ¿te han informado de que aquí se habla euskera? ¿quién te ha informado de ello?
- Para acceder al puesto trabajo, ¿te han planteado en algún momento la conveniencia de saber hablar euskera? ¿Crees que hablar euskera podría ayudarte para mejorar tu

situación laboral o económica, o crees que no influye? Por ejemplo, en las relaciones con los clientes o usuarios de los servicios. ¿crees que los del lugar lo percibirían mejor? O ¿no es importante?

- ¿Dirías que es necesario hablar euskera para progresar socialmente y económicamente? O ¿crees que puede ayudar en ello? ¿Qué ayuda? O ¿que no es relevante?
- ¿Piensas, que si nos entendemos, no es necesario hacer esfuerzos añadidos, que no es más que complicarse la vida?
- Crees que es parecido para las personas que ya están trabajando que para los niños/niñas y jóvenes?

Euskera (Aprendizaje)

- Si has aprendido a hablar euskera ¿cuáles son los motivos? (o, tus hijos/hijas)
- ¿Cuándo, cómo, y si han recibido clases, en qué circunstancias?
- ¿Qué es lo que te ha aportado de nuevo o de interés?
- ¿Crees que se dan las facilidades necesarias para aprender a hablar? ¿Cómo podría mejorarse? ¿Cuáles son las dificultades principales?
- Si has aprendido euskera, ¿en qué circunstancias has podido practicar? ¿Te has sentido acompañado/a por los euskaldunes? O por el contrario, ¿has sentido que no te han ayudado lo suficiente?

Integración SOCIAL Y CULTURAL (2.maila, integrazio soZIALA ETA KULTURALA)

- ¿Tienes relación con los habitantes de la localidad?
- ¿Tienes oportunidad de realizar actividades de ocio, como deporte, paseos, excursiones...? En esas ocasiones ¿vas acompañada de personas también procedentes de otros países? O, ¿sueles ir con otras personas del pueblo donde vives?
- ¿Tienes oportunidad de realizar actividades culturales como cine, teatro, o conferencias? En esas ocasiones ¿vas acompañada de personas también procedentes de otros países? ¿De dónde? O, ¿sueles ir con otras personas del pueblo donde vives?
- ¿Cómo definirías las relaciones con las personas del pueblo? ¿Crees que tu proceso de relaciones (integración) en este pueblo está siendo positivo? O, por el contrario ¿estás teniendo dificultades? ¿Cómo se podría mejorar la relación entre las personas del lugar y las procedentes de otros países?
- ¿Crees que las costumbres de tu país se parecen (o son iguales) a las de aquí? ¿En qué casos son iguales? ¿en qué se diferencian?, por ejemplo, la manera de relacionarse con la familia, las relaciones con los amigos y amigas, la comida, la religión, las reuniones, la música...
- ¿Crees que las costumbres de tu país se parecen (o son iguales) a los de otros países de procedencia, por ejemplo, Colombia, México, Argentina, Venezuela, Bolivia... con los de aquí? ¿En qué casos son iguales, diferentes o se parecen?, por ejemplo, la

- manera de relacionarse con la familia, las relaciones con los amigos, la comida, la religión, las reuniones, la música
- ¿Qué sentimientos ha generado? ¿Qué opinión general tienes del trato recibido? ¿Crees que las diferencias dificultan las relaciones con los del lugar? ¿Cómo podrían mejorarse esas relaciones?
 - ¿Has tenido oportunidad de acceder a expresiones culturales? ¿También en euskara? ¿Has tenido contacto con la cultura euskaldun? Música, bailes, literatura, teatro, juegos.....
 - ¿Qué impresión te ha dado? ¿Crees que se debería promocionarse la cultura en euskera? O, realmente, crees que no merece el esfuerzo que supone.
 - ¿Crees que es lo mismo para las personas mayores que para los niños/as y jóvenes?

Integración IDENTITARIA (3.maila, integrazio identitariora)

- ¿Cuáles son las expectativas de futuro por ejemplo para dentro de 5 años: prevé volver al lugar de origen? ¿Preferiría quedarse aquí? ¿En otro lugar?
- En caso de que tenga hijos/as, ¿Cuáles son las expectativas de futuro para ellos, por ejemplo para dentro de 5 años: prevé volver al lugar de origen? ¿Preferirán quedarse?
- ¿Crees que podrías llegara a considerarte de aquí? ¿En qué circunstancias? ¿Y tus hijos/hijas?
- ¿Crees que es importante mantener tu cultura de origen? ¿Crees que es posible también para los hijos/hijas?
- ¿Crees que es posible mantener un sentimiento positivo fuerte (identidad) respecto al país de origen, y sentirse también bien integrado en el país de llegada?
- Sobre la política lingüística
- ¿Qué opinión te merece que el euskera sea oficial con el castellano?
- ¿Crees que es útil hacer esfuerzos para que la gente aprenda y hable euskera?
- ¿Crees que está bien que se promueva el uso del euskera en los organismos oficiales (Ayuntamiento, escuela...)?
- ¿Crees que está bien que se pida un conocimiento determinado de euskera para los trabajos de atención al público?
- ¿Tu opinión general, con respecto al esfuerzo por mejorar las situación del uso del euskera? ¿Crees que merece el esfuerzo?
- A partir de lo que conoces, ¿en qué se podría mejorar?

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Abercrombie, Nicholas, Stephen Hill, eta Bryan S. Turner. 1986. *Diccionario de Sociología*. Madrid: Cátedra.
- Aierdi Urraza, Xabier. 2000. «La inmigración española a Euskal Herria». *EuskoNews&Media* 101.
<https://www.euskoNews.eus/0101zbn/gaia10101es.html>.
- . 2022. «Euskararen erreserba etenezina eta Sisifo». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 125:137–58.
- Alonso, Lara. 2020. «Ideologías raciolingüísticas». In *Repensar la educación. Claves para entender el multilingüismo contemporáneo*, -(e)k argitaratua Luisa Martín Rojo eta Joan Pujolar. Ed. UOC, Prensas de la Universidad de Zaragoza.
- Altuna Ramírez, Jaime, eta Jone M. Hernández García. 2018. «%2,7a Euskara, generoaz mintzo?» *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 106:115–44.
- Amorrortu, Esti, Ane Ortega, Itziar Idiazabal, eta Andoni Barreña. 2009. *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Barriga, Holger R. 2015. «Las Hipótesis de Investigación Cuantitativas y Cualitativas en las Ciencias Sociales». *FENopina* 79.
- Bujan Vidales, Karmele. 2001. «Kasu azterketa" metodoaren izaera: kasu azterketa diseinua EHUko hainbat tesi lanetan». *Revista de Psicodidáctica* 11–12:133–42.
- Castles, Stephen. 2014. «Las fuerzas tras la migración global». *Revista Mexicana de Ciencias Políticas y Sociales* 20:235–60.
- Giménez, Carlos. 2010. *Kulturartekotasuna: kontzeptu-proposamena eta aplikazio praktikoak*. Ikuspegi, Eusko Jaurlaritza, Euskal Herriko Unibertsitatea. Libk. 2. Koadernoak. <https://centroderecursos.alboan.org/eu/registros/5392-el-interculturalismo-propuesta-conceptual>.
- Gutiérrez, Rodolfo. 2013. «La dimensión lingüística de las migraciones internacionales». *Lengua y migración* 5:2:11–28.
- Hernández García, Jone M. 2010. «Hizkuntza aztergai: Ikerketa-metodoetara oinarritzeko hurbilpena». In *Soziolinguistika eskuliburua*, -(e)k argitaratua Arkaitz Zarraga, 285–348. Andoain: Soziolinguistika Klusterra, Eusko Jaurlaritza.

- Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia, Begirada 82. 2021. «Latinoamerikar jatorriko biztanleria EAEn. 2021». Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia.
- Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia, Begirada 82. 2021. «Atzerrian jaiotako biztanleria jatorriko herrialde nagusien arabera, EAEko udalerriak. 2021».
- Joly Charrasse, Lionel, eta Belen Uranga Arakistain. 2010. «Hizkuntza-ideologia eta hizkuntza-jarrerak». In *Soziolinguistika Eskuliburua*, 183–228. Andoain: Eusko jaurlaritza, Soziolinguistika Klusterra.
- Levitt, Peddy, eta Nina Glick Schiller. 2004. «Perspectivas internacionales sobre migración: conceptualizar la simultaneidad». *Migración y Desarrollo* 3:60–91.
- Mayan, Maria J. 2009. *Essentials on Qualitative Inquiry*. Walnut Creek: Left Coast Inc.
- Mejía Navarrete, Julio. 2000. «El muestreo en la investigación cualitativa». *Investigaciones sociales* 165–180. 4(5):165–80.
- Moreno Fernández, Francisco. 2009. «Integración sociolingüística en contextos de inmigración: marco epistemológico para su estudio en España». *Lengua y migración* 1:1:121–56.
- Nyberg Sørensen, Ninna, Nicholas Van Hear, eta Poul Engberg-Pedersen. 2005. «El nexo entre migración y desarrollo: evidencias y opciones políticas». In *La migración. Un camino entre el desarrollo y la cooperación*, -(e)k argitaratua Nieves Zúñiga García-Falces, Centro de Investigación para la Paz (CIP-FUHEM). Madrid.
- Pallí Monguilot, Cristina, Luz M^a Martínez Martínez, Andrea Calsamiglia Madurga, eta Jenny Cubells Serra. 2019. «Actitudes y discurso». UOC Universitat Oberta de Catalunya.
- Paredes García, Florentino. 2020. «Un modelo para el análisis de la integración sociolingüística de la población migrante: fundamentos, dimensiones e instrumentos». *Lengua y migración / Language and Migration* 12:1:39–81.
- Portes, Alejandro. 2005. «Convergencias teóricas y evidencias empíricas en el estudio del transnacionalismo de los inmigrantes». *Migración y desarrollo* 4:2–19.
- Potts, Karen, eta Leslie Brown. 2005. «"Becoming an anti-oppressive researcher"». In *Research As Resistance Critical, Indigenous, and Anti-Oppressive Approaches*, Canadian Scholars' Press, 255–286. Toronto: Brown, L. A. eta Strega, S. (eds.).

- Rosa, Jonathan, eta Nelson Flores. 2017. «Unsetting race and language: Toward a raciolinguistic perspective». *Language in Society* 46 (5):621–47.
- Sassen, Saskia. 2020. «Un nuevo tipo de migrante: ¿escapando del “desarrollo”?» *Forum. Revista Departamento Ciencia Política* 18:124–44.
- Sayad, Abdelmalek. 1984. «Estado, nación e inmigración. el orden nacional ante el desafío de la inmigración». *Peuples méditerranées* 27–28:187–205.
- Shershneva, Julia. 2021. «Euskera eta immigrazioa EAEn». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 119:41–58.
- Silva-Corvalán, Carmen. 2001. *Sociolingüística y pragmática del español*. Washington: Georgetown University Press.
- Silvestre Cabrera, María. 2023. «Genero desberdinkeria nazioartekoa da, baina ez naturala: kultura vs. Natura». In *Dimentsioak, desberdinkeraren ikuspegitik. Zabaldurik 1*, -(e)k argitaratua Julia Shershneva Zastavnaia. Bilbo: Ikuspegi, EHU, EJ.
- Steven, Vertovec. 2013. «¿Hacia un post-multiculturalismo? Comunidades cambiantes, condiciones y contextos de diversidad». In *Multiculturalismo y minorías étnicas en las Américas*, -(e)k argitaratua Adriana Cruz-Manjarrez, 37–64. Universidad de Colima.
- Uranga Arakistain, Belen, Asier Basurto Arruti, eta Paula Laita Pallares. 2023. «1950-1970eko etorkinen integrazio soziolinguistikoa Altzan». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 128:115–40.
- Uranga, Belen, eta Xabier Aierdi. 2021. «Gipuzkoako hizkuntza aniztasuna. Jatorri atzerriarrek biztanleen hizkuntza-bizipenak, jarrerak eta asmoak». Soziolinguistika Klusterra, Gipuzkoako Foru Aldundia (Argitaratu gabe).
- Vicente Torrado, Trinidad L. 2023. «Immigrazioa eta desberdintasun sozialak: inklusioaren erronka euskal gizarteak». In *Dimentsioak, desberdinkeraren ikuspegitik. Zabaldurik 1*, -(e)k argitaratua Julia Shershneva Zastavnaia, 111–35. Bilbo: Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia.
- Villa Galán, Laura, eta Lara Alonso. 2023. «¿Habilidad o identidad?: tensiones entre las ideologías neoliberales y las raciolingüísticas en el trabajo de los y las jóvenes bilingües de origen latino en EEUU». *International Journal of the Sociology of Language* 282:119–57.

- Zabalo, Julen, Ilune Basterra, Iker Iraola, eta Txoli Mateos. 2010. «1950-1980ko hamarkadetako etorkinen integrazio moduak Hego Euskal Herrian». *Jakin* 180:11–34.
- Zapata Solano, Mario. 2024. «Gutxiagotutako komunitate etnokulturalen ikuspuntutik hausnartzen». In . Andoain.
- Zapata-Barrero, Ricard. 2008. «Diversidad y política pública». *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*, 104 (irailak):93–104.